73
ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
2011ko uztaila



IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ELKARRIZKETA

Juan Carlos Moreno Cabrera:

Nazionalismo linguistikoa ez da hizkuntza subordinatu bat izan eta hura errebindikatzea

EZTABAIDA

Energia nuklearra eztabaidagai

Japoniako Fukushimako zentralean izandako istripuak ezbaian jarri du berriro nuklearren segurtasuna. Zenbait herrialdek neurri zorrotzak hartu dituzte. Alemaniak, esate baterako, energia nuklearra baztertzea erabaki du. Baina aditu batzuek diote energia berriztagarriekin bakarrik ezin dela ase gizartearen energia kontsumo handia. Lau adituren iritziak jaso nahi izan ditugu.

ERREPORTAJEA

Toki onak badira Euskal Herrian

Hainbat lagunen turismo gomendio bana udarako





GIZA BALIABIDEAK

Gardentasuna bestelako politika baten erakusgarri

JORDI JOLY

HITZEZ HITZ

Aktak idazteko hizkuntza-baliabideak

EDORTA ESPAÑA



Maite Gurrutxaga

73.zk. • uztaila • 2011

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:
Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Urtzi Barrenetxea, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Edorta España, Iratxe Etxebarria, Irene Fernández, Juan Gartzia, Maite Gurrutxaga, Iñaki Iñurrieta, Koro Irastorza, Mikel Iturbe, Jordi Joly, Inaxio Lopez de Arana, Luma, Isabel Martín, Nerea Pikabea, Garbiñe Ubeda, Amaia Ugartemendia, Izaskun Zuntzunegi.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 1576-5563
Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Donostia-San Sebastián 1,
01010 VITORIA-GASTEIZ.
Tel. 945 01 76 37
www.ivap.euskadi.net

Aurkibidea

2 *Marrazkia*
Maite Gurrutxaga

4 *Pasadizoak*
Senar-emazteetatik neska- edo mutil-lagunetara

5 *Pertsonaia*
Julian Iantzi

6 *Mundua online*
DUDANET
Euskararen gramatika osoa Interneten

7 *Normalizazioa*
Trebakuntzako eskuliburua

8 *Elkarrizketa*
Juan Carlos Moreno Cabrera

12 *Leihatila*
ALABAREN MARRAZKIA
Garbine Ubeda Goikoetxea

13 *Gramatika*
Erakusleak testuen jostun (eta 2)

15 *Eztabaida*
Nuklearra, etorkizuneko energia iturria?

[ARIKETAK]

19 *Leihatila*
ELTXOA
Inaxio Lopez de Arana

20 *Erreportajea*
Toki onak badira Euskal Herrian

24 *Informazio eta komunikazioaren teknologiak*
Wikipedia: lagun ezezagun hori

26 *Hitzez hitz*
Aktak idazteko hizkuntza-baliabideak

28 *Giza baliabideak*
Gardentasuna bestelako politika baten erakusgarri

30 *Lanean euskaraz*
Eskriben kasta

32 *Leihatila*
IA DENAREN HISTORIA
Isabel Martin

33 *Ba al zenekien?*
Urdanetan Itzulbidaia. Herioa lagun

34 *Denbora-pasak*

JOXERRA INTERÍNEZ

Behin-behineko funtzionarioa

interinez@mindless.com



Senar-emazteetatik neska- edo mutil-lagunetara

Kaxildo Alkorta
Laguna

Ez dakit zein herritxotako Joxetxori umetan antzeman omen zioten ez zela adimen bete-betekoa, xume samarrekoa baizik. Txikitako lagunak mutil koxkortu eta neska koxkortu ahala, eta ondoren mutil eta neska gazte egin ahala, Joxetxo ere mutil koxkortu eta mutil gazte egin zen, sano asko eta pozik. Eta, gertatu egin behar-eta, halako batean haurtzaroko lagun bat ezkondu zen, geroxeago beste bat, handik pixkatera beste bat… Joxetxori ere ezkondu egin behar zuela sartu zitzaion buruan eta apaizarengana jo zuen.

–Zer dugu ba, Joxetxo? –apaizak.

–Ezkondu egin nahi dudala!

–Ezkondu?

–Bai, jauna.

–Eta zeinekin ba?

–Arreba Julitarekin.

–Hori ezinezkoa duk ordea, Joxetxo!

–Zergatik da ba ezinezkoa?

–Etxekoek ezin dutelako beren artean ezkondu.

–Ezetz? Gure aita ezkondu zen ba gure amarekin!

Horrelako kontakizun polit ugari entzundakoak gara.

Kontua da Joxetxok ezkondu egin nahi zuela, norbaiten gizona edo senarra izan nahi zuela eta bere andrea edo emaztea eduki. Joxetxoren sasoian, mutilak igande arratsaldetan neska-laguntzan ere ibiltzen zirenean, elkarrekin gustatuta zeuden neska-mutilei batera bizitzeko asmoa piztu eta sendotzen ari zitzaiela igartzen zienean jendeak, gehiagotan entzuten hasten ziren hitz jakin hauek: nobioa, andregaia, senargaia, ezkongaiak, ezteiak, bortaldu, esposatu, ezkondu, ezkontide, ezkonberri, gizona, emaztea, andrea, senarra, senar-emazteak, baita kortejatu ere..; tokian tokikoak.

Hogeita bi-hiru urte nituela, joan den mendeko 65-66an, Donostiako moilan, gure artean neska batzuk ere baziren eta, ezagutzen ez genuen mutil bat hurbildu zitzaigun; hari entzun genion berak "txabalia" zuela. *Txabalia*, alajaina! Azpeitiko Inazio izeneko batek fin asko jo zion adarra. Ni baino urte on batzuk zaharrago zen Inazio. Gu gustura.

Harrezkeroko euriteak eta lehorteak pasa ondoren, aspaldian ikusi ez dugun lagunen edo ezagunen bati, berrogeita hamabost-hirurogei-hirurogeita hamar urteko andra edo gizonari, galdetzen badiogu "Eta?, semeak zer?" edo "alaba zertan?", sarritan hau dugu erantzuna: "Zeran bizi da, hara ezkondu zen; bueno!, ezkondu-edo, badakizu, gaur egun…", "Bai, bai"…

Bizilagun, *lagun*, *bikotekide*, *neska*, *neska-lagun*, *mutil*, *mutil-lagun*… Hitz horiek erabiltzen dituzte paperak bete gabe (elizakoak zein udalekoak) elkarrekin bizi diren askok eta askok azken urteotan. *Senarra*, *emaztea* eta horiek aurreko belaunaldiko jendearentzat utzita dituzte. Kanta hartako "… kortejatzian lotsatzen naiz, nola demontre biziko naiz?" edo beste hartako "bertze zoinbat bezala zu baziña libre, zurekin ezkontzeko dudarik ez nuke", diot hainbat kantatako hitzen ordez beste batzuk erabiltzen hasiak direla.

"Inori gaitzik egin gabe, karlisten erlijiñua batez baino hobea" zion kantua ere bazen. Neuk ere inori gaitzik egin gabe, bikoteen arteko loturaren inguruko hitz berri horiek eragin dizkidaten pentsamenduak adierazi nahi nituzke hurrengoan, gai honetan badago zehaztu beharreko hamaikatxo gauza-eta. Oraingoz, amaitzeko, elkarrizketa hau besterik ez.

Ez dakit non irakurri nuen eta elkarrizketa esan dut, baina galdera da.

Irudian, adin handi-handiko amonatxo bat eta aitonatxo xahar-xahar bat zeuden, bakoitza bere besaulkian eserita. Okotza eta sudur muturra ia bat eginda, aitonak bastoiaren okerdurari eutsika zituen bi eskuak, dardarka. Eta hau zioen:

–Aizu, Karmen. Zuk eta biok zer harreman izan dugu bizitzan, zer izan gara: neba-arrebak, eskolako lagunak, ezkongaiak, senar-emazteak edo zer…?

Karmen agian aitona haren txabalia izana izango zen. Ez jakin. Ez eta entzun zionik ere. ■

Julian Iantzi, telebistako aurkezlea:

Lehiakideak probetan lehian ikusten ditudanean, sekulako inbidia pasatzen dut

Nerea Pikabea. KAZETARIA

Munduan reality gehien egin dituen aurkezlea dela dio, hogei bat gidatu baititu guztira. Kalifornian jaiotako lesakarrak 44 urte ditu, eta Irunen bizi da. ETB 2ko *El conquistador del fin del mundo* saioa gidatzen du astero. Pantaila txikia astindu du, kirola, lehia eta elkarbizitza ardatz dituzten saioekin. Probak muturreraino eramaten dituzte, gizakiaren sufrimendu eta elkarbizitza ahalmena zenbaterainokoa den ikusteko.

Nolatan hasi zinen telebistaren munduan?
Ikasketaz informatika programatzailea naiz, baina ostalaritzan aritu naiz, aseguruak saltzen, lantegi batean…

Andreak animatuta hainbat castingetan parte hartu nuen. Txikitan ametsen bat izatekotan, handitan kirolari profesional izatea izan da. Lauzpabost egunetan kirola egiten ahalegintzen naiz.

Abentura, lehia, norbere burua hobetzea. Ikur horiekin bat egiten duzu?
Bai. Lehiakideak probetan lehian ikusten ditudanean, sekulako inbidia pasatzen dut. Telebistan nabilenetik, puenting egin dut, Aconcaguan izan naiz, estratosferan ibili naiz, 10.000 metrotik salto egin dut paraxutarekin, etab.

Bateren batekin lehiatzekotan, norekin izango litzateke?
Azkena egin dudana aise galdu dut Juanito Oiartzabalen kontra mendian! Askotan ez dugu baloratzen besteek egiten dutena, guk sufritzen dugun arte.

Telebistako realityek ez dute sarritan ospe ona izaten, arinkerietan ibiltzen direlakoan. Zuek, ordea, sinesgarritasuna lortu duzue.
Programak hiru zutabe ditu: biziraupena, lehia eta elkarbizitza. Guk ez dugu marra hori gainditzen. Jendeak parte hartu nahi du bizipen berriak izateko, jakiteko non dagoen bere muga, ez horrenbeste sariagatik. Espainiako beste telebista saio batzuetan diruak eta ospeak indar gehiago dute.

Zerk erakartzen du ikus-entzulea?
Gertatzen dena gertatu den bezala kontatzen dugu, ez dugu ezer faltsutzen. Horrez gain, garrantzitsua da castinga: ez dugu hartzen *frikirik*. Jende oso desberdinaren bila joaten gara, elkarren artean nola moldatzen diren ikusteko.

Hilabete asko ematen duzu etxetik kanpo, familia ikusi gabe. Nola daramazu hori?



Hor, irakurketan dago gakoa. Normalean, sei hilabete egiten ditut etxetik kanpo. Baina gero, etxean nagoenean, beste aita batzuk baino gehiago egoten naiz umeekin. Orain aprobetxatu behar dut, hau ez baita betirako izanen.

Zein dira hurrengo erronkak?
Hiru erronka ditut buruan: 1 Formulako auto bat gidatu, 8.000 metroko mendi batera igo, eta *ironman* bat egin (lau kilometro igerian, 180 kilometro bizikletan eta maratoi bat). Ipurterrea naiz zentzu guztietan eta horretan ere bai.

Etorkizunean pentsatzen duzu?
Saiatzen naiz gehiegi ez pentsatzen, egunean bizitzen, orainaz gozatuz, agian etorkizuna ez dela iritsiko pentsatuz. ■

MUNDUA ONLINE



Euskararen gramatika osoa Interneten

Luis Elizondo. luis@hegoa.info

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuak prestatutako *Sareko Euskal Gramatika* Interneten dago jadanik, denon eskura, www.ehu.es/seg helbidean. Pello Salaburu, Patxi Goenaga eta Ibon Sarasola hizkuntzalari ezagunek zuzendu dute egitasmoa, baina EHUko zein beste hainbat unibertsitatetako irakasle ugarik hartu dute parte horretan.

*Sareko Euskal Gramatika*k bi berezitasun nabarmen ditu. Alde batetik, Internetekoa da, beraz ez du gramatika arruntek duten itxura. Gramatika batean agertzen ez diren hainbeste lanabes erabiltzen da sarean: testuak, argazkiak, irudiak, barneko eta kanpoko estekak (hizkuntza desberdinetan)… Lanabes horiek guztiak ageri dira gramatika horretan.

Gramatika bat egiteko gramatikariek erabiltzen dituzten materialak bere horretan ematen dira: testuak, hiztegiak, hitzen erabilerak, euskalkien berriak… Horiek guztiak modu autonomoan kontsulta daitezke. Gramatika batean ageri ez diren gaiak ere ikus daitezke: hizkuntzaren jabekuntza, prozesamendua, fonetika eta fonologia, hizkuntzen arteko kalkoak, zalantzak argitzeko tokiak, eta abar.

Hainbat atalek osatzen dute *Sareko Euskal Gramatika*. Hiztegiena da horietako bat. *Orotariko Euskal Hiztegia*z eta Ibon Sarasolaren *Zehazki* gaztelania-euskara hiztegiaz gain, beste tresna batzuk eskaintzen ditu webguneak, hala nola, *Egungo Euskararen Hiztegia*. Beste hiztegi batzuekin alderatuta, horren ezaugarri nagusia da gaur egun erabiltzen den euskara hartzen duela oinarritzat. Izan ere, 2000. urtetik aurrera idatzitako testuak hartu dira aintzat hiztegia osatzeko, urte hartan argitaratu baitzuen Euskaltzaindiak *Hiztegi Batua,* euskal lexikoa finkatzen duen lan mardula.

Ereduzko Prosa Gaur izeneko corpus mardulean oinarritzen ari dira *Egungo Euskararen Hiztegia* egiteko. 25 milioi berbak osatzen dute corpus hori, 2000. urtetik 2006ra arteko literatur lanetako zein prentsa idatziko testu aukeratuetatik hartutakoek.

Proiektua dinamikoa eta bizia denez, atal guztiek ez dute garapen bera, eta hurrengo urteetan materiala gehitzen joango dira. Gaur egun gramatikaren sail guztiak kontsultatzeko moduan dauden arren, etengabe elikatu eta berriztatzeko asmoa du EHUk.

DUDANET onlineko kontsulta-zerbitzua

Hemen dituzu IVAPeko DUDANETera heldu diren zalantza batzuk, emandako erantzunekin batera:

GALDERA

Nola Egun on, hauxe da nire zalantza: Zelan idatzi behar dugu adib. maiatzaren 11n edo 11an?

ERANTZUNA

Hamaika hitzak *-a* berezkoa du; beraz, ez da kasu markan islatu behar.

11a, gaizki: 11 (hamaika)
11an, gaizki: 11n (hamaikan)
31an, gaizki: 31n (hogeita hamaikan)
51ako, gaizki: 51ko (berrogeita hamaikako)
71ara, gaizki: 71ra (hirurogeita hamaikara)
91atik, gaizki: 91tik (laurogeita hamaikatik)

GALDERA

Argazkigintza eta perretxikoak gustatzen zaiona nola izendatu behar dugu?

Argazkigintza eta perretxiko zale
Argazkigintzazale eta perretxikozale

ERANTZUNA

Euskaltzaindiaren arautu duenez, *-zale* atzizkidun hitz elkarteak lotuta joan behar dute. Beraz, *argazkigintzazale* eta *perretxikozale* dira forma zuzenak.

Bestalde, jakin ezazu, Euskaltzaindiaren oniritzia daukan *Letra larriak idazteko irizpideak* lanean honakoa zehazten dela:

> "Letra larriz idazten den izen batez edo sigla batez eta *-zale* atzizki gisa funtzionatzen duten izenekin osatutako hitz eratorriak letra xehez idazten dira".

Horrela bada, *Athletic* larriz hasita idatziko dugu; baina *athleticzale*, ordea, letra xehez (eta lotuta).

Informazio gehiago:

- Euskaltzaindiaren 25. araua. "Hitz elkartuen osaera eta idazkera": http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0025.pdf
- MUJIKA, Alfontso. *Letra larriak erabiltzeko irizpideak.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, (2008) 78. or.
- http://www.euskadi.net/r332732/es/contenidos/informacion/dih/es_5490/adjuntos/estilo_liburua/letra_larriak.pdf

Antzeko kontsulta gehiago ikusteko, edo zeure zalantzak argitzeko:

- http://www.ivap.euskadi.net/r61-v50001x/eu/v50aWar/comunJSP/v50acambioIdioma.do?v50aCgaIdioma=eu

Trebakuntzako eskuliburua

2008-2010eko esperientzia Eusko Jaurlaritzan

Iratxe Etxebarria
Trebakuntza programaren arduraduna (IVAP)

Inork ez dezala pentsa zerbait berria asmatu dugula. Ez, ez dugu ezer berririk asmatu; izan ere, trebakuntza programak aspalditik ari dira eskaintzen arlo publikoan zein pribatuan. Baina liburu batean jaso nahi izan dugu Eusko Jaurlaritzan abian jarritako azken esperientzia, oso emaitza onak jaso ditugulako eta gure esperientzia konpartitu nahi dugulako.

Zer aurkituko duzu eskuliburu honetan?

Administrazioan ari garenok badakigu azken urteotan langile asko saiatu dela euskara ikasten, hobetzen, tituluak lortzen… Baina, halaber, ikusi dugu euskaraz jakitea, eta ondo jakitea gainera, ez dela aski egun batetik bestera urteetan gaztelaniaz egindako lana euskaraz egiten hasteko, eta argi dago oso zaila dela urrats hori bakarka ematea.

Arrazoi asko dago, ziur aski, horretarako: ikasketak, erreferentziak, ohiturak, laneko prestakuntza… Izan ere, denak edo ia denak heltzen dira gure eskuetara gaztelania hutsean.

Gaztelaniaren ohituratik euskararen berritasunerako bidean laguntzeko, trebakuntza programa jarri zen abian Eusko Jaurlaritzan 2008an. Eta eskuliburu honen helburua da, gure esperientziatik abiatuta, trebakuntza programa bat martxan jarri nahi duen herri administrazioetako teknikari edo arduradunentzat gida praktikoa eskaintzea.

Horretarako, liburuan kronologikoki azaldu dugu zein pauso eman behar dituen administrazio batek trebakuntza programa behar duela erabakitzen duenetik langilea euskaraz lan egiten hasten den arte. Beraz, irakurleak ez du aurkituko eskuliburu honetan erabilerari buruzko teoriarik; bai, ordea, hainbat argibide praktiko langileak euskaraz aritu daitezen. Ariketarik ere ez du aurkituko; izan ere, laster argitaratuko dugu saioetan erabilitako material didaktikoa biltzen duen beste liburu bat.

Zein atal ditu?

Sarrera atalean laburbildu dugu nola sortu zen eskuliburua, zein asmorekin idatzi dugun, norentzat den, zer aurkituko duen irakurleak eta zer ez, etab. Eta horren ostean honako hauek:

- **Aurrekariak**

Lehenengo atalean azaldu dugu zein testuinguru behar duen trebakuntza programak ahalik eta eraginkorrena izateko.

- **Trebakuntzaren oinarrizko irizpideak**

Bigarrenean, trebakuntza zer den eta zer ez den adierazi dugu.

- **Zein dira trebakuntzaren faseak?**

Ondoren, atal nagusia den honetan, irudikatu dugu trebakuntza programaren antolaketa eta berau garatzeko egin beharrekoa, balizko trebagai batzuen ibilbidea ardatz hartuta. Argi adierazi nahi izan dugu zer egin behar den trebakuntza programa abian jartzeko, zein diren bidean aurkitu daitezkeen oztopoak eta horiek gainditzeko erak, baina dena adibide praktikoz horniturik.

- **Datuak**

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzako trebakuntza programaren datuak bildu ditugu aurreko azalpenen argigarri gisa.

- **Gida praktikoa**

Honetan, aurretik emandako informazioa beste era batean antolatuta eman dugu, era eskematikoan, hain zuzen. Horrela, behar izanez gero, begi bistan izango ditu irakurleak trebakuntza programan hasieratik bukaerara eman beharreko urrats guztiak eta trebakuntzako eragile bakoitzaren egitekoak.

- **Eranskinak**

Atal praktikoena da hau: trebakuntza programan erabili ditugun dokumentu eta fitxa guztien ereduak bildu ditugu bertan, trebakuntzan parte hartuko dutenen eguneroko lana erraztearren.

Bestela ere antolatu daiteke trebakuntza, zalantzarik gabe. Trebakuntza programa bakoitzak bere ñabardurak ditu eta izango ditu, eta tokian tokiko errealitatera egokitu beharko da. Bide horretan, gure proposamenak erreferentzia baino ez du izan nahi honelako proiektu bat aurrera atera nahi duenarentzat.

Edozelan ere, programari buruzko informazio zehatzagoa jaso nahi izanez gero, ateak zabalik ditugu eta gure esperientziaren berri bertatik bertara emateko prest gaude. ■



Juan Carlos Moreno Cabrera:

Norberaren hizkuntza bestearenaren gainetik dagoela aldarrikatzea da nazionalismoa

Miel A. Elustondo
IDAZLEA ETA ARGAZKILARIA

Juan Carlos Moreno Cabrera Hizkuntzalaritza Orokorreko irakasle katedraduna da Madrileko Unibertsitate Autonomoan. Hainbat liburu eta artikuluren egile da, eta beraren lanek behin baino gehiagotan inarrosi dituzte han-hemengo bazterrak. *Nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva* (2008) saiakera da horren adibide behinena. Hizkuntza guztiak berdinak direla defenditzen duen ikerlari honek herdoilik ez du mihian gaztelaniaren nagusigoaren oinarri ahulak kritikatzeko, eta espainiar estatuan hitz egiten diren gainerako hizkuntzen aldeko aldarri egiteko.

Faltsua da gaztelaniaz besterik ez dutela elkar ulertzen espainiar estatuko pertsona guztiek

Bertatik bertara zuri entzuna: "Nik ideologia halako bat defenditzen dut: Hizkuntza guztiak berdinak dira". Horren aldarri egiten jardun beharrak berak zer pentsa ematen digu…

Hizkuntzak gizartean hitz egiten dira, eta gizartean badakigu zer dagoen, ezberdintasun franko. Neke da, eta zail, hizkuntza eta gizartea, bata bestetik bereiztea, gizartearen muinean sortzen baita hizkuntza, haren arrimuan garatzen, lantzen… Nola bereizi hizkuntzaren gizarte funtzioa, alde batean, eta haren egitura, bestaldean? Jendeak ez du hizkuntzaren egiturarik ikusten, baina bai delako hizkuntza hura gizartean nola gauzatzen den, gizarte harremanetan, erlazio pertsonaletan… Jakina, horretaz bezainbatean, hizkuntza guztiak ez dira berdinak, batzuk halako leku jakinetan erabiltzen dira, beste batzuk ez; batzuk halako zoko ezkuturaino barrentzen dira, beste batzuk ez… Baina kontu horiek denak gizarteari dagozkio, haren egiturari, historiari, egoera politikoari, ideologiari… Hori horrela da, agerian denez. Guztiarekin ere, ordea, hizkuntzak baditu beste hainbat alderdi, berezkoak zaizkionak, intrintsekoak, eta horiek erakusten digute hizkuntza guztiak berdinak direla.

Berdinak, zertan, zein oinarriren arabera?

Hizkuntzalaritza Zientifiko Garaikideak frogatu duen gertakaririk handienen artean dago hizkuntzen arteko berdintasuna: egituraren arabera hizkuntzak ezberdinak izanagatik ere, oinarri komun bat bera partekatzen dute hizkuntza guztiek, eta are garrantzizkoagoa, denek ere gramatika-garapen maila bera dute. Hizkuntzalaritza Garaikidearen aurkikuntzarik inportanteena da, ene ustez… XVI. eta XVII. mendeetan, kolonialismoa tarteko, Europako gizarteek bestelako komunitate batzuekin egin zuten topo. Haien bizimodua "atzeratutzat" jo zuten, "ez eboluzionatua" omen, eta, hortik etorri zen uste okerra, alegia, komunitate haiek, nahitaez, gramatikari dagokionean "gutxiago" garatutako hizkuntzak zituztela, hizkuntza sinpleagoak, soilagoak, hizkuntzok hitz egiten zituzten gizarteak hala ageri omen zirenez. Jakina, ageri, betiere, Europako jendearen begietara. Ez noa ukatzen gizarte batzuk beste batzuk baino garatuago direna, zenbait alderdiri dagokionean, baina hizkuntzalaritzak zalantza bihirik gabe erakutsi eta frogatua du komunitate txiki haiek hitz egiten zituzten hizkuntzek, gramatikari –hots, hizkuntzari berari– dagokionez, grekoak, latinak edo bestelako hizkuntza klasikok duen garapen maila bera dutela. Askok gibelondoko galanta jaso zuen hori frogatu zenean, ezbairik gabe frogatu ere. Izan ere, hizkuntzak deskribatzeko metodoa dugu, hizkuntz metodoa, eta ez dago hari itzuri egiterik; zehatza da, eta zorrotza. Eta horixe frogatu du metodoak, erran nahi baita, Hizkuntzalaritza Garaikidearen aurkikuntza paregabea: giza komunitate guztien hizkuntzen gramatika egiturek –idazketa garatu duen ez duen, eta gizarte faktoreak zeinahi direla ere…– garapen maila bertsua dutela. Ikaragarria da aurkikuntza!

Hizkuntza guztiak berdinak dira, gramatika egitura maila bertsuan garatua dute denek. Hizkuntza guztiak ez dira berdinak, hizkuntz komunitate halako batek ez ditu hizkuntza haiek guztiak berdin, ez berdintasunez, erabiltzen…

Gizartean hizkuntza bat baino gehiago denean, gizarte harremanen ondorio da hizkuntzaren egoera. Gizartean ezberdintasunak gertatzen direnez, nagusigo harremanak eta beste, hizkuntza ere ez da bide horietatik aparte ibiliko. Hizkuntzen kanpo eragilea da hori: hizkuntza eta komunitatea, hizkuntza eta elitea, hizkuntza eta… Kanpo faktoreak betiere, baina, nolanahi ere, hizkuntzari atxikiak. Izan ere, hizkuntza ez da objektu hutsa, aktibitate bat baizik, eta jokoan da beste hainbat aktibitateren artean, izan sozialak, izan politikoak, ideologikoak edo diskurtsiboak… Erlazio konplexuak gertatzen dira, nagusigo harremanak, gizarte egiturari lotutakoak. Arlo horretan gertatzen dira hizkuntzen arteko ezberdintasunak.

Hortik laster da nazionalismo linguistikoa, zure aztergaietarik bat…

Ideologia da, finean… Nik oso modu berezian definitzen dut. Ez da jendeak uste duena. Ni honela hasten naiz nazionalismo linguistikoa definitzen: halako komunitate batek hizkuntza bat du; komunitate horrek uste du bere hizkuntza hori inguruan hitz egiten direnak baino gorago dagoela; delako lehen hizkuntza hura gorago dagoenez, nagusiagoa denez, komunitateak sinesten du hizkuntza hori gainerako guztien gainetik ezartzeko, inposatzeko, obligazioa duela, eta, kasu, beherago diren hizkuntza haietako hiztunen onerako ere! Inposizio horrek, jakina, hala-moduzko kondizionamendu historiko, politiko eta demografikoak ditu atzean. Dena dela, beti bat eta bera da ondorioa: hizkuntza ustez nagusia duela sinesten duen herriak delako hizkuntza hori bestelakoen gainetik ezartzeko joera. Chauvinismo halako bat duzu. Nik nazionalismo linguistiko izena eman diot. Bestalde, nazionalismo linguistikoa ez da hizkuntza subordinatu

bat izan eta hura errebindikatzera jotzea. Hori ez da nazionalismo linguistikoa! Nire hizkuntza besteak baino gorago dagoela uste izatea eta, hortik datorrenez, nire herria ere besteak baino gehiago dela uste izatea, bai. Izango dira, noski, heiagora egingo dutenak: "Hori ez duk nazionalismo linguistikoa!". Ados, emaiozu X izena, berdin zait, baina horra, finean, gertatzen dena!

Nazionalismo linguistikoa, esklusiboa da halako eta halako hizkuntzarena?

Ezta pentsatu ere! Jakina, hizkuntzak ez dira inperialistak, erakunde politikoak baizik. Hala ere, metonimiaz baliatuz, laburtuz, hitz egiten dugu horrela. Alegia, ingelesak, frantsesak, errusierak, portugesak, indonesierak, txinerak… era berean jokatzen dute nazionalismo linguistikoari dagokionez. Batzuk inperioa izan dira, eta arrazoi ekonomiko, politiko eta demografikoak tarteko, hainbat lurraldetara hedatu dira, eta beren hizkuntza inposatu dute lurraldean lurraldeko hizkuntzaren gainetik. Beraien hizkuntzaren erabilera ezarri dute, derrigorrez, hura prestigiatu dute, lekuan lekuko hizkuntzak gutxietsirik, bazterturik. Ideologia horri "Inperialismo linguistikoa" izena emana dio Robert Phillipsonek. Halaxe du liburu bat idatzia, *Linguistic Imperialism*, non ingelesaren inperialismoa modu harrigarrian kontatzen duen: nola indartzen den, nola inposatzen, British Councilen egitekoa… Bikain azaltzen ditu inperialismoaren atzean gordean dauden mekanismo ekonomiko, politiko eta ideologikoak oro. Bertatik edan nuen nire liburua egin orduko.

Zergatik du inork bere hizkuntza besteareneren gainetik jartzeko nahia?

Botere politiko nagusi bat den guztietan –edo gehienetan, bederen–, botere hori halako hizkuntza bati loturik ageri da. Nagusigo politikoa, jakina, hizkuntzaren eremuraino heldu ohi da. Nagusigoak inposizioa dakar, botere zentral bat ezartzea hainbat lurraldetan. Boterea ez dator isilik, hizkuntza dakar, eta boterearen atzaparra iristen den punturaino helduko da erregimen haren hizkuntza. Hizkuntza, bere horretan, jokoaren parte da, osagai ekonomiko, politiko, historiko, ideologiko eta beste askorekin batera. Hizkuntza ez dago gizarte harremanetatik apartean. Ezin du egon, gizarte gertakaria baita, izan, hizkuntza. Ezinbestekoa da harremanetarako. Gizarte harremanak nolako, hizkuntzaren egoera halako.

Zer diozu nazionalismo linguistiko horrek sortzen dituen mitoen gainean?

Handiena, hizkuntza batzuk gorago daudela beste batzuk baino: "Nirea besteen gainetik dago". Menendez Pidalek esaten zuen, adibidez, Iberiar penintsulan erromantzeak eratzen hasi ziren garaian, Gaztelako erromantzea geroan nagusituko ziren soluzio fonetikoak hartzera zuzenduta zegoela. Zioen gainerako erromantzeek porrot egitera zuzenduta zeuden apustu fonetikoak egin zituztela. Menendez Pidalek esana da, idatzia. Baina hori *a posteriori*ko ideologia bat baizik ez da: "Hemen bada nazio bat, nagusia, Gaztelakoa –edo Espainiakoa–, hizkuntza bat duena, nagusia…". Hori nola edo hala justifikatu beharra dago, ordea, eta, beraz, hizkuntza jaio zen garaian bertan delako hizkuntza nagusi horrek ezaugarri intrintsekoak izatea ezinago justifikazio historiko egokia zaigu. Mitologia purupurua, jakina. Oraingo egoera zuritu behar denez, iragana bera zuritzen da. Biribila Menendez Pidalena!

Gaur egun…

Gaur egun indarrean dagoen mitoa, berriz, gaztelaniaz besterik ez dutela elkar ulertzen espainiar estatuko pertsona guztiek. Faltsua. Hizkuntza komunaren mitoa: hizkuntza demokratiko bakarra, guztiok berdintzen gaituena, guztioi aukera berdintasuna bermatzen digunа… gaztelania! Omen. Espainiako nazionalismo linguistikoak gaur egun duen axioma da: "Espainera da espainiar guztiek elkar uler dezaketen hizkuntza bakarra". Baina badiotsut, axioma faltsua da, eta ideologikoa: ni, gaztelania hiztuna naizen honek, galego hiztuna eta katalan hiztuna ulertzeko gai naiz; era berean, galego hiztuna gaztelania ulertzeko gai da. Zergatik diote, beraz, gaztelania dela elkar ulertzeko dugun hizkuntza bakarra? Eta, hala ere, jendeak sinetsi egin du leloa.

Zergatik du jendeak diskurtso hori sinesten, eta ez pekoz gora iraultzen?

Oso delako erosoa. Diskurtso hori sinetsi eta ez du beste hizkuntzarik ikasi beharrik. Kezkarik ez. Munduan dagoen gauzarik erosoena: "Nik ez dut nire burua zertan behartu, galegoz mintzo denak gaztelaniaz ere baitaki, eta katalanez eta euskaraz mintzo denak. Nik besterik ikasi? Ez dut zertan!". Baina, berez, gaztelania hiztunok galegoa eta katalana –ez dut esango euskara, beste sistema batekoa baita– ulertzeko gai gara, hainbat mende iraun duen harremana lagun. Haiek gurea ulertzeko bezain gai gara gu –gaztelania hiztunok– haiena ulertzeko. Kontrakoa esatea, alegia, gaztelania hiztunok ez garela gai, arrazakeria litzateke, gure gaitasun intelektuala gutxiestea. Hortaz, diot, gaztelania hiztunok badugu inguruko hizkuntzok ulertzeko gaitasuna, nahiz eta diskurtso ofizialak esan gaztelania dugula hizkuntza komun bakarra, guztiok elkar ulertzeko hizkuntza bakarra. Jendeari, berriz, ongi zaio diskurtso hori sinestea, erosoa baita, ez baitu ahalegin bihirik egin behar. Eta ez du ahaleginik egin behar, egin nahi, gaztelania ez beste hizkuntza eta kulturak gutxietsi egiten dituelako; mespretxatzen ditu.

Mespretxatzen?

Bai, hizkuntza bat preziatzen dugunean berealdiko ahaleginak egiten baititugu,

dirutza gastatzen, hura ikasteko. Hori da ingelesaren kasua. Zenbat diru gastatzen du jendeak ingelesa ikasten, zenbat denbora ematen dio? Balio handia ematen diote. Alegia, inork zer edo zer egiazki baloratzen duenean, garrantzizkotzat jotzen, ahalegina egiten du. Espainian, ordea, "gurea –gaztelania, jakina– baino gutxiago" diren hizkuntzatzat hartuak dira galegoa, katalana eta euskara, eta ez du merezi haiek ikastea, ahaleginik egitea ere! Ez dugu aberastasuna preziatzen, dibertsitatea… Mespretxua, eskumenean duguna baloratzen ez dugun heinean. Baina mespretxua betiere. Hitz egin euskaraz Madrilen, laster baztertuko zaituzte, aurpegiratuko dizute: "Gaztelaniaz badakizu, hitz egin gaztelaniaz!". Mespretxua, zenbaitetan, "gutxiago" den hizkuntza horretako hiztunen gogoraino sartu da: "Gureak ez du balio. Lotsa ematen dit galegoz –halaber, euskaraz, katalanez– hitz egiteak!".

"Nirea" ez besteko hizkuntzen zailtasuna, mitoa da?

Ez da zailtasun kontua, motibazioa baizik. "Euskara zaila da". Motibazioaren arabera… Ni euskaraz ikasten hasi nintzenean, adibidez, konturatu nintzen han eta hemen entzuten nituen izenek esanahia zutela. Zubizarreta, Garaikoetxea, Koipe, Ikusi, Otsein… bat-batean, esanahiaren jabe egin zitzaizkidan. Horrek neure hizkuntzaren gainean pentsatzeko ordu arte ez bezalako dimentsioa eskaini zidan! Aberasgarri gertatu zitzaidan, zeharo. Fantastikoa!

Mitook hizkuntzon normalizazioa galarazten dute, zailtzen?

Dudarik gabe. Giro horretan sortua da inposizioaren inguruko kanpaina. Inposizioa, katalana inposatu nahi omen da Katalunian, euskara Euskal Herrian, galegoa Galizian. Jende askok sinetsi egiten du! Horixe burugabekeria! Kontua da gaztelania izan dela, denbora luzean, hizkuntza menderatzailea hiru herrialdeotan. Eta, gaur egun, gaztelaniaren nagusigo erabateko hori ez da hain erabatekoa estatuan, beste hizkuntzak ere bere burua erakusten ari baitira. Askok ezin du hori onean eraman, nonbait. Nire iritziz, ongi da gizarteak eleaniztun izatea, baina hizkuntza bat nagusitu behar baldin bada, izan dadila bertakoa: katalana, euskara edo galegoa. Ideala litzateke hizkuntza guztiak maila berdinean egotea baina ez dut horrelako gizarterik ezagutzen: beti bada hizkuntza bat besteak baino gehiago erabiltzen dena. Bi hizkuntza erabiltzen direla, primeran, baina izan dadila bertakoa nagusia. Logikoa iruditzen zait, nahiz eta askok ez duen ni bezala pentsatzen. Are gutxiago Madrilen…

Espainiako hiriburuan, erdigunean…

Niri, esaterako, nazionalista naizela esan izan didate, nazionalismo linguistikoaren kritika egiten dudalako! Esan dut zer den nazionalismoa: norberaren hizkuntza bestearenaren gainetik dagoela aldarrikatzea. Ez dut ezagutzen katalanik, katalana gaztelaniaren gainetik dagoela esaten duenik. Katalanez bizi nahi duten katalanak besterik ez ditut ezagutzen, katalanez bizitzeko eskubidea dutenak, ni gaztelaniaz bizi naizen modu berean bizitzeko eskubidea dutenak. Eta hori ezinezkoa da Katalunian, ezinezkoa da Euskal Herrian, ezinezkoa Galizian.

"Hizkuntza, informazioa transmititzeko mekanismoa besterik ez da", diote…

Ez hori bakarrik. Inperialista linguistikoek sartu nahi diguten ideia da hori. Hizkuntzak komunikazio-tresna direla diote haiek, eta, guztiok bata bestearekin komunikatzekotan, ingelesa ikasteko esaten digute. Baina hori baino gehiago da hizkuntza. Lehenengo, ez da tresna, aktibitate multzoa baizik. Ez da gauzakia, ez da lapitza, ez da trena… Badira tren batzuk –ingelesa, kasu– herrialde askotatik barna dabiltzanak. Beste batzuk –jo dezagun, euskara–, beren lurralde ñimiñoan baizik hara-hona dabiltzanak. Baina hizkuntza ez da tren ez tresna, giza aktibitate askoren multzoa baizik. Aktibitate horien artean komunikazioa dago; baina ez hori bakarrik, baita adierazpena, kultura, psikologia eta beste. "Informazioa transmititzeko mekanismoa…" hori horrela balitz, bai, hizkuntza bat eta kito, elkarri informazioa transmitituko genioke –jakin egin behar nork nori zer transmitituko liokeen!– eta aurrera. Hizkuntzak kultura, ideiak, mundu ikuskera… ditu bere baitan. Horrela ez balitz, laster ginateke George Orwellen *1984*ko hartan! Komunikaziorik egiazkoena ez da gertatzen ideia berdinak ditugunon artean, hizkuntza bat bera –eta are, hizkelgi bat bera– dugunon artean… Komunikazioa izatekotan, ezberdintasuna behar dugu, komunikazioa sorkuntza baita, eta horretarako nahitaezko da dibertsitatea. Sorkuntza da gakoa: mezuak sortzen ditugu, inork agindu gabe. Ideologia inperialistak mezu bat bakarra dagoela sinetsarazi nahi digu, hizkuntza bat bakarra, bat bera guztiontzat. Eta diot nik: hizkuntza bat bera, ideia berak, ikusmolde bera… Hor ez dago komunikaziorik. Besteren ideietara egokitze prozesua da komunikazioa, besteren pentsatzeko eta adierazteko modura geure buruak egokitzea. Hortxe sortzen da giza kreatibitatea, sorkuntza eta, finean, komunikazioa. ■

Hizkuntza ustez nagusia duela sinesten duen herriak delako hizkuntza hori bestelakoen gainetik ezartzeko joera du



Alabaren marrazkia

Garbine Ubeda Goikoetxea
Idazlea

Zazpi urte bete berri dituen alabari ikaragarri gustatzen zaio marraztea. Noiznahi egiten du bere afizioaren aldarria. Sarritan, goizeko nagiak atera orduko. Margoak eta gainerakoak eskuratzeko laguntza behar badu "ama, marrazkia" botako dit ziplo, naizen tokitik entzuteko moduan, haurtxo gosetiak funtsezko premia nola. Asmoen iragarpena egiten ari bada, berriz, badaezpadako zentzua ere emango dio osatuko duen esaldi indikatiboari: "marraztu nahi dut". Esan nahi baita, "orain ez eskatu jostailuak biltzeko edo hortz-haginak garbitzeko edo ahizpari kasu emateko edo platerekoa bukatzeko edo antzekorik. Orain honetan arituko naiz. Kito".

Dagoeneko automatizatuta duen ohiturari jarraiki, bere trasteak hartu eta sofan eseriko da. Eta hankak gurutzatuta dituela, tapa gogorreko liburu bat ipiniko du izterretan, eta hura mahaia bailitzan, bospasei orri zuri gainean. Gero, intimitatea babesteko premiak bultzatuta antza, marrazteko behar ez duen besoa luzatu eta papera inguratuko du disimulurik gabe. Ikastolan ondokoari kopiatzen utzi nahi ez genionean bezala.

Landu beharrekoak landuta, dei gartsu batez emango digu begiratzeko baimena. Eta hala, inguruan gauzkala, harro baino harroago biluztuko dizkigu bere fantasiak, ametsezko mundua ispilatzen duten jardun girotuak, gustuko gauzak eta jendeak, hitzezko komunikazioan nekez ageri diren xehetasunak.

Irudi figuratiboak izaten dira beti, surrealista xamarrak nahi bada, baina identifikagarriak. Esate baterako, soineko luze haizatua zertxobait goratuz, oinetako takoidunak erakusten ari den printzesa kalpar horia, atzean jirafa kumea dirudiena begira duela. Esate baterako, etxe eder eta harmoniatsuak bustitzen dituzten hodei negarti ezpain gorriak. Esate baterako, bihotz zoriontsu hegalariak, azenario-soro batean biribilketan, eta eguzkia, zergatik ez badakigu ere, haserre, trumilka… Bai. Sinpleki, ederrak.

Gaur, inorako presarik ez genuen arren, goiz jaiki zaigu ohetik. Txiza egiteko tarterik ere hartu gabe, abisua modu indikatiboan eman eta sofarako bide zuzena egin du pijamatan. Irribarretsu eta aske ageri da bere zereginetan. Neurriko altzariak aurkitzen ez dituen xinaurria dirudi, berera hain buru-belarri bildua. Hain xalo. Hain duin.

Hondartzarako poltsa prestatzen ari nintzela luzatu digu harenganatzeko gonbitea. Inoiz baino tematuago aritu da, inoiz baino arduratsuago, enpeinu ona jarrita gero, eta ezagun zaio umorean: dirdirka ditu begiak. Kasik erreberentzia eginez deskubritu dizkigu azkenik 'lantxoak' –hala izendatu ohi ditu–, bereziki hirugarrena, marigorringo arrosaz, pinpirin koloretsuz eta hegazti moko luzez jositako beste biren atzetik heldu dena.

"Aaa… Bai berezia…", murmurikatu diot bizpahiru segundoren ostean. Denbora irabazteko trikimailua besterik ez da izan, egia aitortu behar badut, bistan jarritakoak eragin didan harridura –dezepzioa– ezkutatzeko modu inprobisatua. Betiko parafernaliari segitzen saiatu naiz ia instintiboki. Hark marrazkia erakutsi orduko, irudian ikusi dudana komentatzea izaten da lehen urratsa. Bere irudimena goraipatzea, ahalegina txalotzea eta, teknika berririk erabili badu, hura nabarmentzea heldu ohi da atzetik… Ezin izan dut.

"Hara…" bota diot berriz. Izan ere, bai bitxia zirriborro urdin single hori, orri osoa tindatu duen orban homogeneo eta minimalista hori. Eta batere apaingarririk gabea, hain… laua. Hain… soila. Hain, hain… geldoa… Ur-putzua margotu nahi izan ote du… Arraintxoren bat jarri izan balio behinik behin… Gorroto dut ordea, zer den galdetzea. Ez da nire estiloa. Lanaren funtsa gutxiesteko biderik motzena dela iruditzen zait, sentsibilitaterik edo psikologiarik gabekoen baliabide merkea. Baina gaur betebetean harrapatu nau. Hitzik gabe nauka, deseroso. Bere bat-bateko molde aldaketak justifika dezakeelakoan, etsi egin dut azkenean, eta itauna luzatu diot:

–Itsasoa ote da? –atera zait tonu neutro xamarrean.

Begietako dirdira galdu gabe erantzun dit, beratasunez, edo errukiz akaso, aurrez aurre duena kilo eta erdiko artaburua dela deskubritu izan balu bezala:

–Ez, ama. Artea da. ■

Erakusleak testuen jostun (eta 2)

Juan Gartzia
Idazlea

Aurreko artikuluan, erakusleen izenordain-erabileraz aritu ginen. Oraingo honetan, haien izenondo-erabilera jorratuko dugu. Erakusle guztiok kidetasun estu-estua dute funtsean, baina zenbait desberdintasun xehe ere ageri dute, kasu bakoitzean betetzen duten funtzio gramatikalarekin loturik.

Berriro ere, singularreko erakusleen haritik emango ditugu azalpenak. Pluraletarako, kontuan har bedi pluralek ez dutela ia inoiz hartzen erreferente abstraktuko adiera (gaztelaniazko *neutro*aren baliokidea: ***hori***=*eso*), eta, beraz, sinpleagoak direla gauzak *hauek/horiek/haiek* serian.

Erakuslea izenordain gisa erabiltzen denean, hark soilik seinalatzen du erreferentea testuetako anaforen eta kataforen kasuan (aurrez aurreko deixi arruntean, egoerak eta keinuek laguntzen dute erreferentea zehazten). Erakuslea izenondo gisa erabiltzen denean, berriz, harekin doan izen arruntak ere parte hartzen du erreferentea zehazteko orduan. Hala, argiago geratu ohi da erreferentea:

izenordaina: ***hau/hori/hura***

izena + izenondoa: *neska/etxe/egoera* ***hau/hori/hura***

Hori da, bada, egiturazko aldea bi erabileren artean. Nolanahi ere, izenak adierazten duen erreferente hori deixiak bereizten dituen hiru distantzietariko edozeinetan egon daitekeenez, hiru graduen banaketa bertsua ageri dute erakusleek, funtsean, izenordain izan zein izenondo.

Hona izenondo erakusleen funtzio-banaketa (izena isildurik joan daitekeela adierazten dute parentesiek):

- 1. gradua:

  deixi arrunta [*hemen dudan (liburu)* ***hau***]
  katafora [*orain aipatuko dudan (liburu)* ***hau****: ...]*

- 2. gradua:

  deixi arrunta [*hor duzun (liburu)* ***hori***]
  anafora [*aipatu berri dugun (liburu)* ***hori***]

- 3. gradua:

  deixi arrunta [*han dagoen (liburu)* ***hura***]
  anafora [*umetan irakurritako (liburu)* ***hura***]

Esanahia zehazteko hor eman ditugunen moduko erlatibozko perpausak esplizitatzen direnean, erakuslerik gabe ere adieraz daitezke erreferenteak, izenondo erakusleak adierazi nahi duena erlatibozko perpausak jada adierazia duelako. Hain zuzen ere, izatez, erredundantea da hor erakuslea, deixi-komunztadura moduko bat, eta aski litzateke artikulua:

*hemen dudan / orain aipatuko dudan liburu**a***
*hor duzun / aipatu berri dugun liburu**a***
*han dagoen / umetan irakurritako liburu**a***

Bestalde, kontuan harturik bigarren graduko singularreko izenordaina (*hori*) testuko erreferente abstraktu aipatu berriak adierazteko espezializatua dagoela ("*kontu* hori", "*gertaturiko/pentsaturiko /esandako* hori"…), espero izatekoa da banaketa ez izatea berdin-berdina izenondoen kasuan, izen abstraktuak atal bat baino ez baitira izen arrunten sailean.

Alegia, mila aldiz normalagoa izango da, testuetako anaforetan, baliokidetasun mota hau:

baieztapen ***hori*** [izenondoa] = ***hori*** [izenordaina, erreferente abstraktua]

beste hau baino[1], ohiko esanahi abstraktu hori nagusitzen baita, ia erremediorik gabe, *hori* izenordain gisa erabiltzean:

liburu/aulki/neska ***hori*** [izenondoa] = ???***hori*** [izenordaina, erreferente konkretua]

Gainerakoan, esan bezala, berdina da graduen banaketa. Deixi arruntetik kanpo, idatzian, kataforetarako espezializaturik dago lehen gradua, eta hartarako gordetzea komeni da:

... *filosofo* ***hau*** zuen gogokoen**: Spinoza**.

Testu-anafora arruntean (aipatu berri dena erreferente), bigarren gradua da arauzko eta egoki:

... **Spinoza**... ; *filosofo* ***hori*** zuen gogokoen.

[1] Izena isildurik joan daiteke, baina erakuslea berdin da izenondo kasu horretan ere: *(liburu)* ***hori***.

Izenak erreferentea seinalatzen laguntzen duela eta, egia da ez dela beti nahasbide handirik gertatzen halako anaforetan lehen graduko izenondoa erabilita ere, eta maiz aurkitzen ditugula halakoak tradizioko idazleen artean, baina, esan bezala, tradizioko joeretatik estandarrean nagusituz doan eta hemen aurkezten eta gomendatzen ari garen ereduan, saihestekotzat jotzen da erabilera hori, katafora-esanahi berezkoan interpreta baitaiteke *hau* izenondoa (areago, jakina, izenordainen kasuan, aurreko artikuluan ikusi genuenez):

... [Spinoza]... *Filosofo* ***hau***... [: Kant]

aipatu den (filosofo) ***hau (=hori)*** [anaforaz: **Spinoza**]

aipatuko den filosofo ***hau*** [kataforaz: **Kant**]

Izenordainen eta izenondoen arteko beste desberdintasun xehe baina garrantzitsu bat ere bada, testuetako anafora arruntenei dagokiena (gorago aipatu dugun *hori* izenordainaren esanahi-espezializazio horrek eragina). Izen konkretuak erreferente direla, anaforaren aukera ez-markatua hirugarren gradua da izenordainen kasuan (aipatzen den *mundua* harturik erreferentziatzat):

... neska bati... ; ***hark***...

Izenondoen kasuan, berriz, bigarren gradua da ez-markatua (aurreko *testu* zatia harturik erreferentziagunetzat):

... neska bati... ; *neska* **horrek**...

Azken horretan, bada aukera, noski, hirugarren gradura jotzeko, baina iraganeko urruntasunera aldatzen da orduan erreferentzia (testuaren erreferentziagunetik munduarenera), markatuki:

... neska bati... ; *neska* ***hark***...

Izenordainekin, aldiz, bigarren graduaren espezializazioa dela eta (erreferente abstraktuak adierazteko, ikusi dugunez), bestelako erreferentea ulertuko litzateke *hori* erakuslera joz gero:

... neska bati... ; ***horrek***...

[*dena delako gertakari/baieztapen* ***horrek***, eta ez *neska* ***horrek***]

Itxura denez, erreferente konkretuko anaforan *hori-horrek* baztertzen dela eta, testugile batzuek, hirugarren graduko arauzko *hura-hark* ez-markatura *itzuli* beharrean, beste muturrera jotzen dute, hots, lehen gradura, bide horretatik ere areagotuz lehen gradukoen gehiegikeria:

... neska bati... ; ***#honek***...
[aipatu denak ala aipatuko denak? / idazleak ondoan duen norbaitek?]

Garbi esan dugu zein den halakoetarako gomendatzen dugun eredua –lehen gradua kataforetarako gordetzea–, eta, beraz, saihestekotzat jotzen dugu anafora-erabilera horretan lehen gradura jotzea:

... neska bati... ; ***hark***...
... neska bati... ; ***#honek***...

Halako *hark>honek* lerratzeak kalko kultista-edo dira jatorriz, itxura guztien arabera: erreferentzia, diskurtsoaren harian kokatu beharrean (anafora, hirugarren gradua), testuaren materialtasunean kokatzen da (testuaren barruko deixia: *azken (irakurri duzun zer) hau* edo *goiko [lerro batzuk goragoko zer] hura* eta gisakoak aipatzen direnean bezala). Ez dirudi biderik egokiena denik hori euskara estandarrean, askotariko arrazoiengatik.

Honela banatzekoak dira, beraz, izenondo erakusleen erabilerak:

... *neska* ***hau*** ... : **Marta** (izenekoa).
... **Marta** (izeneko neska bat)... ; *neska* (aipatu berri) ***hori*** ...
... **Marta** (izeneko neska bat)... ; *neska* (aspaldiko) ***hura***...

Saihestu beharrekoa:

... **Marta** (izeneko neska bat)... ; *neska* ***#hau***
... [*neska* ***hori*** dagokio]

Izenordainetan, berriz:

... **Marta** (izeneko neska bat)... ; ***#hau***...
[***hura*** dagokio]

Lehen graduko erakusleen gehiegikeria itzulpenen bitartez areago elikatzen duen egitura bat ere bada aipatu beharra, erdarazko honelako esaldietan:

Se lo ha dicho a **Marta,** ***que*** no le ha creido.

Erlatibozko izenordainak anaforiko hutsak dira, ez-deiktikoak (eta, beraz, gradurik gabeak, artikulua bezala), erdaraz zein euskaraz:

Martari esan dio***, zeinak*** ez baitio sinetsi.

Erlatibozkotik aldentzen bagara, anafora-aukera ez-markatura jotzea da egoki:

Martari esan dio, eta/baina ***hark*** ez dio sinetsi.

Zenbait itzultzaile nahiz testugilek lehen gradura jotzen dute halakoetan (ere) itsu-itsuan, eta ia bestelako erakuslerik ez da ageri hala zerturiko testuetan. Itxura batean, erreferentziagune ia bakarra dute edozertararako –*hemen buruan oraintxe dudan hau*–, hortik kanpoko mundurik ez balego bezala[2]:

Martari esan dio, eta/baina ***#honek*** [nork?!] ez dio sinetsi.
Kaliforniara joan zen bizitzera, eta ***#hemen*** [!] hil zen.
Kaliforniara joan zen bizitzera, eta **han** hil zen.

Erlatiboen birmoldaketaren kontu horretan, izenordainez ari gara, eta ez izenondoez, baina, esan bezala, txikiak dira, funtsean, bi sailen arteko aldeak (***hura*** / *neska* ***hori*** alternatzia gorabehera), eta, beraz, bigarren artikulu honetan espazioz erosoxeago ibili garenez, egokia da, noski, hasierakora itzuliz horrela amai dezagun. Ikus, hala ere, kontu bertsua izenondoz:

Lezora ezkondu zen, eta *herri* ***#honetan*** [!] bizi da.
Lezora ezkondu zen, eta *herri* ***horretan*** bizi da. ■

[2] Karikaturazko txantxa honekin, mezua nabarmentzea dut helburu bakarra, eta ez inorenik –eta are gutxiago inor– gaitzestea. Esana dut badutela nolabaiteko tradizioa (eta ez nolanahiko idazleena) saihesteko aholkatzen ari garen erabileretariko batzuek bederen.

Nuklearra, etorkizuneko energia iturria?

Nerea Pikabea
KAZETARIA

Txernobilgo istripua gertatu zela hogeita bost urte bete diren honetan, Japoniako Fukushimako zentral nuklearrean istripua egon izanak berpiztu egin du berriro gizartean energia nuklearraren eraginkortasunari eta segurtasunari buruzko eztabaida. Zentralen segurtasunak eta hondakin erradioaktiboen arazoak kontrako iritzi asko sortzen dituzte, eta energia berriztagarrien aldeko apustua egin behar dela aldarrikatzen dute. Beste batzuek, ordea, energia nuklearraren beharra nabarmentzen dute, ez baitute uste gure energia beharrizanak asetzeko berriztagarriak nahikoa direnik. Horri buruzko gogoeta egiteko eskatu diegu energia kontuetan aditu diren lau pertsonari.



Jose Allende
Hiri eta Eskualde Plangintzako Katedraduna
Euskal Herriko Unibertsitatean:

Gaur egungo eredu sozio-ekonomikoa lehenbailehen berraztertu beharra daukagu

Energia nuklearrari buruzko eztabaida neurriz kanpo jarri dute komunikabideek? Alarma gehiegi sortu dutela uste duzu?

Ez dut uste. Hondamendiaren benetako larritasuna ezkutatzen ari dira, beste istripu nuklearretan gertatu izan den bezala, adibidez Txernobilen. Beti bezala, *lobby* nuklear boteretsua sortu berria den istripu larriari garrantzia kendu nahian dabil. Suitza, Italia edota Alemania bezalako herrialdeek neurri gogorrak hartu dituzte aukera nuklearraren aurrean.

Argindarrak huts egin du Japonian. Horrelako egoera bat aurreikusi zitekeen?

Harrisburg, Txuruga, Windscale, Txernobil edota Fukushimako istripuek erakusten dute zalantzarik gabe nuklearraren aukerak arrisku handiak dakartzala, eta hori onartzea edo baztertzea ez dela arazo tekniko bat, etikoa baizik, eta ondorioz, politikoa. Oraindik ez dago argi Fukushiman egon den arazo bakarra argindarrarena izan den. Jaso ditugun azken albisteen arabera, kausak askoz ere konplexuagoak izan dira eta lurrikararekin berarekin zerikusia dute, zentralaren kokapenarekin, giza akatsekin, etab.

Nola aurre egin diezaiokegu klima aldaketari? Aditu batzuek diote energia berriztagarriekin ezingo genituzkeela ase gure energia beharrizanak.

Energia eta klima aldaketaren konponbidea beste norabide batean doaz: oinarriak dira energia berriztagarriak, hidrogenoa, hidroelektrikoa, energia eraginkortasuna, kogenerazioa, kontserbazioa eta energiaren gaur egungo erabileraren arrazionalizazioa, besteak beste. Klima aldaketari aurre egiteko aukera gisa energia nuklearraz hitz egitea iruzurra, faltsua eta ezmorala da. Ziklo nuklearrak errazten duen erabilera beliko-"baketsuarekiko" harremanak bereziki kezkatzen nau. Lasai asko ordezkatu daiteke eta ez da nahietazkoa, Alemanian Angela Merkelek izendatutako Batzorde Etikoak proposatu berri duen bezala. Klima aldaketak gure zibilizazioaren ekoizpen eta kontsumo eredu jasanezinarekin zerikusia du, eta hor dago arazoaren oinarri nagusia.

Ze funtzio izan behar dute administrazioek? Ingurumenarekin dugun arazoarekiko herritarrak kontzientziatuta daudela uste duzu?

Angela Merkel buru duela Alemaniak egin duena eredugarria izan daiteke. Zoritxarrez energia nuklearra baztertuta ez dira aldatuko gure ekoizpen eta kontsumo ohiturak. Garapen iraunkorraren paradigma berriak gaur egungo eredu sozio-ekonomikoa lehenbailehen berraztertzera behartzen gaitu. Administrazioek informazioa ematea, heziketa, kontzientziazioa eta parte-hartzea sustatzeko lan asko egin behar dute lehenbailehen.●



Igor Peñalva
Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniaritza Eskolako irakaslea, Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakinen Mekanika Sailean:

Nik nahiago dut nuklear bat, erregai fosilak erretzen dituen zentral bat baino

Fukushimako istripuaren ondoren sortutako eztabaida komunikabideek lekuz kanpo jarri dutela uste duzu?

Fukushimako istripuaren aurretik energia nuklearraren aldeko berpizkundea nabarmentzen zen. Orain, ikusi egin beharko da istripuak nolako eragina izango duen. Eztabaida beti egon da eta beti egongo da. Energia nuklearrak abantailak eta desabantailak ditu. Istripu arriskuak eta hondakin erradioaktiboen arazoak kontrako iritzi asko zabaltzen ditu.

Seguruak al dira zentral nuklearrak? Horixe da herritarrek duten kezka nagusia. Txernobilgoaren ondoren ikasgaia ez dela ikasi esan dute askok.

Lurrikararen aurrean sistemek ondo funtzionatu dute Japonian, baina hamabost metroko olaturik ez zuten espero. Zentralak seguruak dira, baina gerta daiteke aurreikusi ez duzun hondamendi bat. Txernobilgoaren ondoren, segurtasun

kultura nabarmen zabaldu da. Txernobilen ez bezala, Fukushiman berehala hustu zuten ingurua.


Egoera oraindik larria da, okerrera egin dezake erreaktoreak hoztea lortzen ez badute.

Ondoan dugu Fukushimakoaren antzeko zentrala, Garoñakoa. Izua sortu du gizartean.

Garoña itxi egingo dutela ematen du. Erabaki politikoa da, hauteskundeak daude tartean. Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak teknikoki luzatu daitekeela esaten badu, ez da egokia Garoña ixtea, azkenean gure sistema energetikoan eragin positiboa duelako. Garoñan ez dago 15 metroko olaturik etortzeko arriskurik. Kontua izango litzateke argindarrik gabe geratzea; gerta liteke. Baina Garoñan berehala gelditzen dute zentrala. Gizarteak erabaki behar du zentralek duten arriskua hartzea komeni den, dituen abantailen aurrean.

Energia berriztagarriak gure energia beharrizanak asetzeko gai dira edo energia atomikoa ezinbestekoa dugu?

Horrelako eztabaidetan aurreiritzi desegoki batzuk ikusten ditut bere burua ekologistatzat duten taldeen artean. Badirudi nuklearren alde bazaude, berriztagarrien kontra zaudela. Etorkizunean berriztagarrietara jo behar dugu, nahiz eta garestiak izan; teknologia asko garatu dugu. Baina berriztagarriek momentu honetan ez dituzte gure eskakizunak asetzen. Eta hor, nik nahiago dut nuklear bat, erregai fosilak erretzen dituen zentral bat baino, azken horiek ingurumena askoz gehiago kutsatzen baitute. Nuklearrak ez du horrenbeste kutsatzen. Ekologista famatu askok –Patrick Moore-k edo James Lovelockek, besteak beste– energia nuklearraren alde egin dute.



Eduard Rodríguez Farré
Medikua eta Zientzia Ikerketarako Kontseilu Nagusiko (CSIC) erradiobiologoa:

Erradioaktibitatea guregana irits daiteke kutsatutako arrainen bitartez

Inportatutako elikagai kutsatuen bitartez erradioaktibitatea Europara irits daitekeela ohartarazi du zenbaitek.

Fukushiman, kutsatutako ura bota dute itsasora. Arrain migrazioen bidez eta arrainontzi espainiarren mugikortasunaren ondorioz guregana irits liteke, elikadura katearen bitartez. Itsasoan kutsatutako molekulak planktonera pasatzen dira, hortik ornogabeetara, ornogabeetatik ornodunetara eta ornodunetatik ornodun haragijaleetara. Kontrolaezina da.

Ze eragin du erradiazio nuklearrak osasunean? Nola eragiten du gorputzean?

Erradioaktibitatea arnastuta edo elikagaien bitartez hartu daiteke. Iodo-131-k, esate baterako, tiroideetako minbizia areagotzen du urte gutxitan; gehienetan ez du heriotzarik eragiten, garaiz lan egiten bada. Txernobilen gertatu zen. Gorputzean pilatzen bada, zelularen molekula-osagaiak aldatu egiten dira, nukleoak aldatu egiten dira eta DNA aldatzera irits daiteke. Minbizia izateko arriskua eta patologiak izateko aukerak areagotu egiten dira.


Aditu askok esan dute azken 25 urteotan, Txernobilgo istripuaren ondoren, ez dugula ikasgaia ikasi.

Japonian istripu nuklear asko gertatu dira; japoniarrak ez dira batere zorrotzak izan. Toxikologian, gaixotasun eta istripuen erakusgai bat da. Txernobilen garaitik ikasi dugu erradioaktibitateak osasunean dituen eraginei buruzko ikasgaia, baina industria nuklearra sustatzeko interesa egon da. Arduragabekeria egoera baten aurrean gaude. Europar Batasunak igo egin ditu berriro elikagaietan baimendutako erradiazio mailak, Txernobilen ondoren egin zen dekretu batekin. Gainera, Industriatik onartu dute hori, ez Osasun arlotik. Europar Batasuneko osasun arrisku berrien Batzorde Zientifikoko kidea naiz eta guri ez digute utzi gai horri buruz iritzirik ematen. Energia nuklearrik gabe ezin dugula bizi salduko digute berriro hamar urte barru.

Aditu batzuek aipatzen dute energia berriztagarriekin ezingo genituzkeela ase gure energia beharrizanak, eta gainera, horietako batzuk garestiak direla.

Herrialde batzuk zentral nuklearrik ez izatea erabaki dute: Austria, Italia… Eta teknologia aldetik herrialde garatuak dira. Zentralik gabe bizi daiteke. Nuklearrak ez dira merkeak, garestiak baizik. Gainera, hondakin erradioaktiboen kudeaketak arazoa izaten jarraitzen du. Nork zainduko ditu hondakin horiek milaka urtetan?





Fernando Plazaola
Fisika Aplikatuan Katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean:

Energia nuklearrak trantsizioko energia mota bat izan behar du

Lor daiteke segurtasun sistemaren bat zentralak argindarrik gabe geratzen direnerako?
Zentralek sistema elektrogeno handi batzuk izaten dituzte erreaktorearen eraikinaren kanpoan, baina tsunamiak kanpoko sistemak ere apurtu zituen. Generadore horiek nukleoaren inguruko babes estalkiaren inguruan egon izan balira edota erreaktorea muino baten egon izan balitz, seguru asko ez zen ezer gertatuko. Erreaktoreak hozteko lanean ari dira eta leherketa arriskua ez da oraindik erabat saihestu. Arrakalak sortu dira eta hortik ura ateratzen hasi da. Egoera egonkortzeko urtebete beharko dute (urte amaiera arte gutxienez). Ia ezinezkoa zirudien ezusteko hondamendi handia gertatu zaie.

Ondoan dugu Fukushimakoaren antzeko zentrala, Garoñakoa. Seguruak al dira nuklearrak?
Baldintza arruntetan nahiko seguruak dira zentralak. Fukushimakoa eta Garoñakoa anaia bikiak dira. Segurtasun Nuklearreko Kontseiluari sinesten diot esaten duenean Garoñakoak beste urte batzuetan funtziona dezakeela. Fukushimakoaren ondoren gauzak asko aldatuko dira industria nuklearrean. Segurtasun neurriak gehiago zorroztu beharko dituzte, eta orain arte kontuan hartu ez diren hondamendi naturalak ere aurreikusi.

Gaur egun ditugun zentraletan fisio erreakzioak eragiten dira, baina ez dago fusiozko erreaktorerik abian. Zergatik?
Fisiozko erreaktoreak *zikinak* dira. Gutxi gorabehera 200 isotopo erradioaktibo desberdin sortzen dira, eta horiek egonkortzea oso zaila da. Hondakin erradioaktiboak dira fisioko zentralen egungo arazo nagusiena. Biltegi moduko batzuk egitea pentsatzen ari dira. Amerikako legediak esaten du 10.000 urtez isolatuta egon behar dutela isotopo horiek.

Fusio erreakzioan, berriz, bi atomo arin elkartzen direnean energia pila bat askatzen da. Erreakzio *garbia* da, baina erreakzio hori sortzeko guk energia asko jarri behar dugu. Orduan, ikusi behar duguna da ea lortzen duguna jartzen duguna baino askoz gehiago den. Leherketa bat gertatzeko arriskurik ez dago. Beste hogei bat urte beharko dira jakiteko hori lor daitekeen.

Energia berriztagarrien aldeko apustua ehuneko ehunekoa balitz, horrek aseko lituzke gure energia beharrak?
Energia nuklearrak trantsizioko energia mota bat izan behar du. Ederra litzateke eguzkitik datorren energia biltzeko gai izatea, baina zer egingo dugu eguzkirik ez dagoenean? Edo haizerik ez dabilenean? Gaur egun, teknologia ez da gai argindarra metatzeko, pilatzeko. Herrialde batzuk (Austria, Suitza…) esan dute zentralik ez dutela nahi euren herrialdean, baina gero nondik lortzen dute energia?

Energia kontsumoa handia da, ezin dugu energiarik gabe bizi. Energiaren arazoa ez da lokala, globala baino, eta energia beharrizanen kontua maila horretan kokatu behar da. ■

Ariketak73

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

1. **Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* kontuan hartuz, aukeratu zuzena eta hutsuneetan jarri:**

   1. Lapurretan egin zuten supermerkatuan eta lekukoek esan zutenez _____ marroia zeraman lapurrak.
   2. Bengoetxea VI _____ zen atzo arratsaldean Atano III pilotalekuan jokatutako finalerdietako partidan.
   3. Mendiko bordak jausi eta pistak ugaldu dira _____ hauetan, eta haiekin batera pagadiak eta hariztiak desagertzen joan dira.
   4. 1985ean hazitarako patataren _____ etorri zen, beste herrialde batzuetatik ekarritako patatak aurre hartu baitzion Nafarroakoari.
   5. Aldaketa soziolinguistikoak oso astiro gertatzen dira, nahiz eta aldeko _____ sozial juridikoaren erabateko beharra izan.
   6. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako _____ larriek badute eskubidea bigarren mediku bati beren egoerari buruzko iritzia eskatzeko, lehenengo medikuak eman dienarekin ados ez badaude edo zalantzak badituzte.
   7. Minbizi zelulak tumore _____tik banandu eta zirkulazio sisteman edo sistema linfatikoan sar daitezke, gorputzeko beste leku batera heldu eta bertan berriro minbizia sor dezakete.
   8. Hiru _____ arriskutsu atxilotu zituen bart poliziak eta taldea osatzen zuen laugarrenaren bila ari dira orain.

gaizkile • gaizkigile	gainegitura • gainestruktura
gainkalde • gainalde	gaisto • gaizto
gailendu • gaihendu	gaixo • gaiso
gainbeherakada • gainbehera	gaban • beroki

2. **Aukera itzazu "Erakusleak testuen jostun (2)" artikuluko egileak hobetsiko lituzkeen esaldiak:**

   1. a. *Buah txabal* bakarrizketan Garikoitz Kortabitarte "Beti" gaztearen gorabeheren berri jakingo dugu. **Gazte honek** euskararekin duen harreman gatazkatsuaren lekuko egingo gaitu Unai Iturriagak idatzitako lanak.
      b. *Buah txabal* bakarrizketan Garikoitz Kortabitarte "Beti" gaztearen gorabeheren berri jakingo dugu. **Gazte horrek** euskararekin duen harreman gatazkatsuaren lekuko egingo gaitu Unai Iturriagak idatzitako lanak.
      c. *Buah txabal* bakarrizketan Garikoitz Kortabitarte "Beti" gaztearen gorabeheren berri jakingo dugu. **Gazte hark** euskararekin duen harreman gatazkatsuaren lekuko egingo gaitu Unai Iturriagak idatzitako lanak.

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde Autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2. a. Herritarron datuek ez dute iraungitze datarik, eta **honek** Administrazioaren independentzia teknologikoa derrigorrezko auzi bilakatzen du.
   b. Herritarron datuek ez dute iraungitze datarik, eta **horrek** Administrazioaren independentzia teknologikoa derrigorrezko auzi bilakatzen du.
   c. Herritarron datuek ez dute iraungitze datarik, eta **hark** Administrazioaren independentzia teknologikoa derrigorrezko auzi bilakatzen du.

3. a. Halaber, artritis erreumatoidea duen mutil gazte batek egindako kexa aipatu nahi dugu. Kexan emandako datuen arabera, **mutil honek** etxez etxeko hezkuntza arretari esker egin zituen derrigorrezko irakaskuntzak.
   b. Halaber, artritis erreumatoidea duen mutil gazte batek egindako kexa aipatu nahi dugu. Kexan emandako datuen arabera, **mutil horrek** etxez etxeko hezkuntza arretari esker egin zituen derrigorrezko irakaskuntzak.
   c. Halaber, artritis erreumatoidea duen mutil gazte batek egindako kexa aipatu nahi dugu. Kexan emandako datuen arabera, **hark** etxez etxeko hezkuntza arretari esker egin zituen derrigorrezko irakaskuntzak.

4. a. Aipatu ereduan aurkeztu beharko da parte hartzeko eskaera, **zeina** txostenaren amaieran eransten baita.
   b. Aipatu ereduan aurkeztu beharko da parte hartzeko eskaera, **eskaera hau** txostenaren amaieran eransten da.
   c. Aipatu ereduan aurkeztu beharko da parte hartzeko eskaera, **eskaera hori** txostenaren amaieran eransten da.
   d. Aipatu ereduan aurkeztu beharko da parte hartzeko eskaera, **eskaera hura** txostenaren amaieran eransten da.

3. **Berridatz itzazu akta batetik ateratako esaldi hauek, "Aktak idazteko hizkuntza-baliabideak" artikuluko egileak proposatutako ildotik.**

   1. Urko Fernandezek, Aramaioren kasuan, futbola, saskibaloia eta eskubaloia barne hartzen dituen modalitate horrekin, data arazoak sortzen direla kimuen mailako egutegietan **adierazi du**.

      _____ **adierazi du,** _____
      _____.

   2. Joserra Angoitiak futbol, areto futbol, saskibaloi, eskubaloi eta errugbi modalitateetan kirol teknifikazioko unitateei baimena ematea arautzen duen Foru Aginduaren zirriborroaren testuari buruzko ekarpenak egiteko epea astebetekoa dela **adierazi du**.

      _____ **adierazi du ezen** _____
      _____.

   3. Karlos Ugartek ez dagoela legezko oinarririk horrelako eskakizun bat egiteko **adierazi du** eta horrelako eskakizun bat ezartzeak kirol eskolen jarduerak arautzeko planteamendua hondatu lezakeela.

      _____ **adierazi duenez,** _____
      _____.

4. Gonzalo Basaurik euskararen eskakizuna, eskola bati baimena ematerakoan, ikasleen artean dagoen eskariaren araberakoa izan daitekeen **galdetu du**.

_____ **galdetu du** _____
_____.

5. Imanolek, GKParen kasuan, euskararen erabilera egoki dakiokeen diru-laguntza gehitzeko faktoretzat jotzen dela **erantzun dio**.

_____ **erantzun dio esanez,** _____
_____.

4. Zein hitz dagokio definizio bakoitzari?

1. Elementu bakarrekoa edo beharrezko ez den elementurik gabea.
2. Zerbait burutzea lortzeko beharrezko aukerak eman.
3. Astindu, higidura azkarrez mugitu, zerbaiti kolpez edo higidura bortitzez eragin.
4. Litzatekeenari baina ez denari dagokiona.
5. Burdina eta altzairuaren gainazalean ur likidoarekiko zein aireko ur-lurrinarekiko ukipenaren eraginez hauei sortzen zaien burdin oxidozko geruza gorri edo horia.
6. Gogo, lehia biziz betea.
7. Norbaiti ziria sartzeko edota nahi dena lortzeko egiten den azpijokoa.
8. Gogoaren joera bizi eta bortitza, gogoa asaldatzen duena.
9. Pertsona fisiko edo juridiko batek beste bati, ordainetan ezer hartu gabe, zerbait ematea eta ematen dena bera.

a. herdoil
b. gartsu
c. balizko
d. ahalbidetu
e. soila
f. dohaintza
g. inarrosi
h. grina
i. trikimailu

5. Lotu hitz bakoitza bere sinonimoarekin

1. Ataka
2. Ahitu
3. Gartsu
4. Bete-betekoa
5. Antzeman
6. Ziplo
7. Heiagora
8. Trumilka
9. Xalo
10. Itauna
11. Murmurikatu

a. Bat-batean
b. Garrasia, oihua
c. Erabatekoa
d. Biraka
e. Kinka larria, estualdia
f. Igarri
g. Bukatu, agortu
h. Xuxurlatu
i. Atsegina, maitagarria
j. Galdera
k. Gogo, lehia biziz betea

Soluzioak73

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde Autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1.

1. beroki
2. gailendu
3. gainalde
4. gainbehera
5. gainegitura
6. gaixo
7. gaizto
8. gaizkile

2.

1. b
2. b
3. b eta c
4. a eta c

3.

1. Urko Fernandezek **adierazi du**, Aramaioren kasuan, futbola, saskibaloia eta eskubaloia barne hartzen dituen modalitate horrekin, data arazoak sortzen direla kimuen mailako egutegietan.
2. Joserra Angoitiak **adierazi du ezen** futbol, areto futbol, saskibaloi, eskubaloi eta errugbi modalitateetan kirol teknifikazioko unitateei baimena ematea arautzen duen Foru Aginduaren zirriborroaren testuari buruzko ekarpenak egiteko epea astebetekoa dela.
3. Karlos Ugartek **adierazi duenez**, ez dago legezko oinarririk horrelako eskakizun bat egiteko eta horrelako eskakizun bat ezartzeak kirol eskolen jarduerak arautzeko planteamendua hondatu lezake.
4. Gonzalo Basaurik **galdetu du** ea euskararen eskakizuna, eskola bati baimena ematerakoan, ikasleen artean dagoen eskariaren araberakoa izan daitekeen.
5. Imanolek **erantzun dio esanez**, GKParen kasuan, euskararen erabilera egoki dakiokeen diru-laguntza gehitzeko faktoretzat jotzen dela.

4.

1. e
2. d
3. g
4. c
5. a
6. b
7. i
8. h
9. f

5.

1. e
2. g
3. k
4. c
5. f
6. a
7. b
8. d
9. i
10. j
11. h

Eltxoa

Inaxio Lopez de Arana
Idazle Eskolako ikasle ohia



Gaua zen eltxo baten hegal-hots gogaikarriak nire logelako bake-giroa zapuztu zuenean. Di-da altxatu, argia piztu eta galtzerdi zahar batekin "gautxori" madarikatu hura akabatzen saiatu nintzen. Baina alferrik, behin eta berriro saiatuagatik, beti ihes egiten baitzuen eltxoak, ni baino azkarragoa izanik. Ehiza ero haren ondorioz, gorputz-adarrak gero eta nekatuago nituen, eta horrekin bateratsu, betazalak ixten hasi zitzaizkidan, begiak guztiz estali arte.

Ezustean, ezinegon lazgarri batek harrapatu ninduen. Ez nuen, hala ere, zirkinik egin. Ohean jarraitu nuen, nire logelan, ezeri aurre egiteko kemenik ez nuela. Gorputza sorgor nuen, baina zerbait zebilkidan barrutik, ziztu bizian; odola bor-bor ari zitzaidan gorputz osoan zehar, zainetatik ihes egin nahi izango balit bezala. Usterik gutxienean, nire sorgortasuna desagertu eta hanka-besoak plastikozkoak banitu bezala hasi zitzaizkidan mugitzen. Sabaia gainera erori behar zitzaidala pentsatu nuen.

Garrasika hasi nintzen. Nire oihuak kalearen txokorik urrunenetik ere adituko ziren. Handik askatzeko hamaika bider eskatu nuen, baina han inork ez zidan entzuten, edo entzunagatik ere, ez zidaten lagundu nahi izango. Ni Ogasuneko ikuskatzailea naiz lanbidez, eta ez nintzateke harrituko jendeak entzungorrarena egin izan balit, oihuka ero moduan ari nintzenean; baina zer egingo diogu? Jendeak ez gaitu oso maite dirukontuak gobernatzen ditugunok; soldataren barruan dagoen zerbait da. Ardura handiko lanpostu batean jardun arren, une hartan ni neure logelan gatibu nengoen eta ez nuen ihesbiderik. Ezin nuen gehiago jasan lau horma haien artean luzaroago egon beharrak eragiten zidan estura. Ohartu nintzen apurka-apurka hiltzen ari nintzela, itotzen, erotzen…

Bat-batean, lehengo eltxo hura, nire eraso guztietatik salbu atera zena, berriro ikusi nuen, baina hasieran ez nion antzik eman, alimaleko neurriak hartuta zeuzkanez gero. Azal barrukoa milikatzen ari zitzaidan! Odol guztia xurgatu nahi zidan kabroiak! Guztiz ikaratuta nengoen. Laguntza behar-beharrezkoa nuen. Infernu hartatik alde egin beharra neukan! Beste bat baino ez nuen behar! Beste dosi bat bakarrik! Bat!

Ordu (edo egun?) batzuk geroago, sendagaien usain sarkorrak esnarazi ninduen. Ez nengoen nire logelan, beste nonbait baizik: ospitalean seguru asko, ospitale bateko gela hits horietako batean, ohean etzanda, besteren menpe. Baina inor ez nuen inguruan galdetzeko. Ziurgabetasun hark gero eta gehiago asaldatzen ninduen. Beso bat zeharo ubelduta eta zulatuta neukan. Harritzekoa: odol-tanta bakar bat ere ez, maindire-burusietan. Argi moduko bat piztu zen nire barnean, eta puzzlearen zati guztiak ondo egokitzen hasi ziren: nire logela, eltxo erraldoiaren erasoa, eutsi ezinezko izu-ikara, dosia… Nire garrasiekin larrituta, seguru asko auzokideek Poliziari deituko zioten, eta Poliziak anbulantziari. Zorionez, konortea galdu nuen, eta ezin izan nuen "ikuskizuna"z gozatu. Nire logelan baino gozoago egon arren, maindire eta horma haien zuritasun orbangabeak gehiago artegatzen ninduen lasaitu baino. Nire gainean gurutze bat zegoen, ospitaleko gela gehienetan bezala. Gurutzeko hari gustura galdetuko nion zer egin behar nuen amaraun hartatik ihes egiteko, baina bera ez zegoen entzuteko, eta ni ere ez, hitz egiteko.

Bata zuriko gizon batek maindirearekin burua estali zidan. Ez nekien zer ari zen gertatzen han. Gainera, artaburu hari esker ezin nuen ezertxo ere ikusi. Eta entzun ere ez!!! Baina bizirik nengoen!!! Oraindik pentsatzeko ahalmena neukan, besterekiko komunikazioan huts egin arren. Hanka bat altxatzen saiatu nintzen, ingurukoei bizirik nengoela ohartarazteko eta, zorte pixka batez, sasi-sendagile hari ipurdian ostiko bat emateko, maindireekin jolasean ibiltzeagatik. Baina ezin. Hanka milimetro bat ere ez nuen mugitu. Ez nuen horretarako kemenik. Gero, ahaleginak egin nituen garrasi egiteko. Hauspoa bete, eta puffff; ezeeeeer ez. Guztiz etsita nengoen.

Argiune batean bururatu zitzaidan hura guztia amesgaizto bat besterik ez zela izango. Nahi bai. Halako batean, zerbaiten zipriztinak nabaritzen hasi nintzen maindireen azpitik. "Ospitale puta honetan itoginak ere baditiztek", pentsatu nuen nire artean. Ez ba: ospitaleko apaiza zen, eta ur bedeinkatua botatzen ari zitzaidan, Jainkoarekin bakeak eginda joan nendin. Bai, hilda nengoen!!! Alde egin beharra neukan handik, bizidunen mundutik alegia. Baina ez nintzen bakarrik joango. Odol guztia xurgatu zidan eltxo madarikatuak ez zuen beste inor ziztatuko. Eskuan indar guztiz atxikita neukan bere eztena, nire etxeko logelan izandako borrokan gupidarik gabe erauzi bainion. Ezten hura izango nuen bidaide, burua nik baino nahasiago zuen batek xiringa baten orratzaren itxura lañoa har baziezaiokeen ere.

Hala eman nituen hiru hilabete, amesgaiztoak baino askoz ere okerragoak ziren eldarnioetan pulunpaturik, desintoxikazio-zentro hits batean. ■

Toki onak badira Euskal Herrian

Hainbat lagunen turismo gomendio bana udarako

Miel A. Elustondo
Kazetaria




"Herrialde guztietan, toki onak badira, baina bihotzak dio: Zoaz Euskal Herrira!". Jose Mari Iparragirre urretxuarrak 1855ean ondu zuen bertsoaren oihartzunak gaurdaino irauten du. Edo joanean garelako, edo etorrian, nork bere sorterria aldez edo moldez beti gogoan… Sentipen zabaldua, gizakiak oro bere baitan daramana, antropologoek behin baino gehiago aztertua, eta gizakiok ez ezik animaliek ere agertu duten sena.

Honako erreportajean, oporraldian sorterriaz gozatzeko aukera eman digute hainbat lagunek, nork bere txoko partikularretik, eta hari baten muturra eskaini. Gure esku dago hariari tira egin eta hamaika toki onetan barna urrutira gabe unibertsal ibiltzea. Bateko txangoak, besteko museoak; honako itsaso bazterreko labar izugarrien ondoan, hondartzak; harako leize, ibai, arroila eta parkeak; noiz bisita gidatuak, noiz gidaririk gabeak; askotariko ibilbideak, eraikin zahar ikusgarriak, abentura txiki eta handiak… Irten eta goza, Karrantza Haranetik Angeluko itsasertzera, Zuberoatik Markina-Xemeinera, Nafarroako Etxalekutik Trebiñura…

Herrialde guztietan, toki onak badira…



Pastorala. Camou-Cihigue.



Angelu.

Pastorala Zuberoan
(Junes Casenave-Harigile, pastoral egilea)

Üda hontan zure oporrak nola iragan ari zira. Nik diozüt üngürü bat egin dezazün Xiberoko bazter horietarat. Gaüza ederrik ikusiko düzü eta xoratürik zirate.

Aipatzen entzün düzü badügüla han antzerki mota berezi bat, Pastorala. Arren, aurten ere baten ikusteko parada ükenen düzü [*Telesforo Monzon* pastorala, Larrainen]. Bena jada zure bürüari galto egiten deiozü zer izan daitekean. Hona argitarzün llabür bat eman nahi deizüt.

Lehenik jakin ezazü zoinahi herrik antola dezakeala. Horko bizizaleak dira eta gaüza eder baten eskentzea dizüe bürüan. Hor dütüzü nekezariak, ofizialdünak, langileak, ikasleak, haurrak, gizon eta emazteak. Bildü dira hilabete zonbaitez ikasten. Lan handia düe beren egitekoak beitütüe, bestalde.

Pastorala antzerki zaharra da. Noitzaz geroz gure eskualdean den ez da erres erraitea. Zahar herexak badütü. Agertzen dü bizitze bat, trajeria bat, istorio bat. Hitz horik ezin ditake berez, bat egiten düe. Hiru zatitan idatzirik dago: lehen perediküa, jelkaldiak eta azken perediküa. Jelkaldien erditan badira Satan dantzak, kantoreak. Güzia aho sonü batetan emana da eta ebilka. Horrek erranarazten deit güzia kantore bat eta dantza bat dela.

Bena zühaurk ikusiko düzü eta harritürik bezala egonen zira, bere lüzean bizitzen bazünü bezala. Egizü bai ürrats berezia pastoralaren ikusteko eta ez zaüzü ez dolütüko.●

Angelun, Amodiozko Ganbara La Barreraino
(Argitxu Noblia, sendagilea, Seaskako lehen lehendakaria)

Zabala da Angelu… supermerkatuak utzi eta lau kilometroko itsas bazterrak badaude itsasargiko iparraldetik Aturri ibairaino. Sei eliza dorreko herria… Angeluko itsasbazterrean bururatzen da Zilarrezko Hondartza. Horko arroketan dago Amodiozko ganbara. Parean den itsasoa aspalditik ezagutua da; bere uhain edo ola azkarrak eztitzen dira ere beheiti doalarik marea.

Lehengoko arloetako harri bereziak hor aurkituak izan ziren, historiaurreko tresna batzuk, aldebiko aizkorak bilduak izan ziren.

Saubadina eta Laurenz-en istorioa gogorarazten digu itsas harrabotsak. Agustin Xahok berak bazekien horien berri 1856. urtean aipatzeko.

Horko hareatzetan arno xuria lantzen zen ere Erdi Arotik azken mende arte.

Gure gaztaroan, hareatzetan gaindi biltzen genituen landare koloretsuak: odolezko geranioa edo julufreiak. Eta hurbil den etxe bat ere hola deitzen da: Julufreiak.

Gaur, udatiarrak heldu dira mainatzeko, igeri eta surf egiteko edo hondarretan belzteko, baita ere patinatzeko Aturriko La Barre delako auzoan. Eta itsasbazterretik landa, Refugeko eliza ikusten ahal da. Bernardines-etan diren landare batzuk erosten ahal dira!

Denetarik baita Angelun.●

Nafarroan, Imozko herrietan barna
(Sagrario Aleman, euskara irakasle eta euskaltzaina)


Eginen dudan ibilbideak Imozko zortzi herriak –Etxaleku, Oskotz, Muskitz, Zarrantz, Eraso, Latasa, Goldaratz eta Urritza– eta Basaburuko Udabe eta Beramendi lotzen ditu. 35 kilometroko luzera du, bide eta xenda balizatuetan barna eginen dugu; aproposa da bai oinez egiteko, bai mendiko bizikletaz egiteko ere, etapa bakarrean edo gehiagotan. Autoz egiteko ibilbide hau ez



Etxaleku.



San Miguel ermita.



Karrantza Harana.

baina, karretera hartu behar dugu eta herri guztiak bisitatu.

Ibilbide honetan bisitatuko ditugun herrietan euskaraz mintzatzen da jende gehiena, euskaraz batere ez dakitenak ere badiren arren. Herriak, gehienak mendi magaletan ditugu eta ibilbidea, hortaz, ez da oso aldapatsua, Goldarazkoa izan ezik, hau gogorra da oso. Herriak oso ttikiak dira, Imozko hiriburua den Etxaleku ez besteak, 100 biztanletik beheitikoak. Herri politak dira denak, bertako karriketan jende askorik ez dugu ikusiko, baina bai harrizko etxe ederrak, XV. mendekoak bakar batzuk eta, ia gehiengehienak, XVII. mendekoak. Etxe handiak dira ia guztiak, garai batean jendea ez ezik, azienda ere bertan bizi baitzen eta sabaian belarra eta ahotza izaten zuten eta.

Elizak denetatik ditugu: erromanikoak, protogotikoak, gotikoak, barrokoak eta modernoak, azken hauek XX. mendekoak.

Goldaratz eta Zarrantz dira goitien dauden herriak eta hauetatik panoramika ederra ikusiko dugu. Urritzan, Basaburua eta Larraun erreken elkargunean, ola zahar baten aztarnak ditugu.

Herri hauetako lurren lautatik hiru arbolez josiak daude. Oihanak herriarenak dira, ez pribatuak. Garai bateko alorrak, garia, arbia, artoa eta ereiteko erabiltzen zirenak gaur soroak dira.

Herri guztietan ikusiko ditugu ibilbidearen informazioa eta herrien ezaugarrien eta etxeen izenen berri ematen diguten panelak. Hortaz, galtzerik ez dugu. Non jan ere ez dugu falta bi ostatu ere baditugu eta, bata Etxalekun eta bestea Goldaratzen.●

Markina-Xemeinen, San Migel Arretxinagakoa

(Jabier Kaltzakorta, herri-literatura irakasle ikertzailea)

Xemeingo lurretan dugu San Migelen ermita, Xemeingo udaletxe zaharraren aurrean. Gaur egun, ermitatzat hartzen bada ere, eliza dela adierazten da euskarazko testigantzarik zaharrenetan. Oiz menditik datorren Artibai ibaia eta Kalamu menditik hurbil dagoen Urko menditik behera egiten duen Urko ibaia batzen diren ibaigurutzetik hogeiren bat hanka-pausora dugu San Migel ermita.

Ermita honek kanpotik ez du ikusmira handirik sortzen, baina barrura sartuz gero, hiru haitz handi elkarren gainka ikusiko ditu bidaiariak. Hiru haitz erraldoi hauek, lurra ozta-ozta ukitzen dutela, tente diraute menderen mendeetan. Hiru haitzok sortzen duten hiru hutsuneetako bitan bi aldare egon ziren noizbait. Aldare nagusia San Migelena da, eta bigarren aldarea, eskuineko alderdian gaur egun hutsik dagoena, Santa Apoloniarena zen.

Baziren hainbat sineskera haitz handi hauen gainean. Santa Apoloniaren aldarako haitzari harri xehea kenduz gero, adibidez, ume txikiei ahoan sartzen zitzaien ondo hitz egiten ikas zezaten. Hagineko mina kentzeko, berriz, min hori zuenak hara joan, haitzari zatitxo bat kendu, hura almoadapean jarri eta osatzen ei zen. Emaztegaia nahi duen gazte edo ezkongaiak ere haitz bitartetik hiru jira eman behar ditu, haitza ukitu gabe.

Jakin nahi izanez gero, sanmigelak irailaren 29an ospatzen dira.

Xemeindarrek eta markinarrek ez dute San Migel saltzeko.●


Karrantza Harana

(Kontxi Trigo, margolaria)

Eta, jakin baliteke, non dago Karrantza? Zer eta non du eder?

Bertako toki interesgarriak zeintzuk diren jakiteko asmoz, Bizkaian bertan inkesta egingo bagenu, bizkaitarrek ez dakitela erakutsiko luke inkestak. Hala ere, Bizkaiko haranik handiena da Karrantza, eta gozatzeko paradisua. Armañongo Parke Naturala, mendi ibilbideak, baserri eta etxeen arkitektura bereziak, museoak… turismo eskaintza handiko lekua. Nik, izan ere, aukeratu behar izango banu, Pozalaguako Haitzuloak bisitatzeko gomendioa egingo nizuke.

1957an aurkitu zuten haitzulo hau, eta estalaktita eszentrikoa da kobak duen



San Bixente.



Unanue.

gauzarik interesgarriena. Gisa honetako estalaktitak meheak eta guztiz hauskorrak dira, eta grabitatearen lege guztiak gainditzen dituztela diote, nahiz eta horren inguruan hainbat teoria dauden.

Ondo-ondoan, berriz, munduko sima barrunberik handienetakoa dugu, Karlistaren torka izenekoa. Eta, horrez gain, kobatik mendira joateko aukera paregabea daukagu. Nekatuta baldin bagaude eta ez badugu ibilbide hori egin nahi, badago begiratoki bat ederra. Handik, Karrantza inguratzen duten mendi guztiak ikusiko ditugu, baita sakanan dauden auzoak ere. Ikustekoa da, bestalde, Joakin Lucarinik egindako El Sucesoko Ama Birjinaren irudia, karrantzarrok aspaldi zaintzen gaituena, Molinarreko bainuetxea eta beste hainbat leku eder.

Haurrekin etortzen bazarete, Ranero-Jorrios ondoan, Karpin parkea duzue. Han, natura beste ikuspuntu batetik ikusiko dugu. Hainbat lekutako animaliak bildu dituzte bertara, baina, parkean, naturaren balioak ulertzen laguntzea da beti helburua.●

Trebiñu konderria, Arabako erdialdeko gunean

(Roberto Gonzalez Viñaspre, filologo eta historialaria)

Arrazoirik ez da falta Arabako erdialde geografikora bisitan etortzeko, baina aurten abagune aparta du Trebiñura inguratzeko asmoa duenak. Antso VI. Errege nafarrak 1161. urtean Trebiñuri hiri-gutuna eman zioneko 850. urteurrena ospakizun da bertan. Izan ere, Erdi Aroko hiria da Trebiñu, bere kaleetan barrena ibiltzea ondotxo merezia duena. San Pedro elizak eta beste eraikin askok bisitariaren interesa piztuko dute, dudarik gabe.

Guztiarekin ere, Trebiñuko Konderriko harribitxi nagusia San Bizente herrian dago: bere ermita erromaniko ederra Gasteizko Elizbarrutiko bikainetakoa da, zinez ikusgarria. Trebiñuko Konderria zabala da oso, kontrastez eta sorpresaz betea.

Utzi ezinezko hitzordua du bisitariak naturarekin eta historiarekin Lañuko kobazulo artifizialetan. Zenbaiten ahotan Arabako Kapadozia den inguru miresgarri hori gizataldeen bizitoki bilakatu zen VII. mendetik IX.era bitartean.●

Unanue mendigaina, Nafarroako Bortzirietan

(Estitxu Fernandez, telebista aurkezlea)

Bortzirietan bada toki bat, gain bat, biziki maite dudana. Unanu deitzen diogu lesakarrok; Unanue da, jakina. Bakean sentitzen naiz han, munduarekin eta nire buruarekin bakean. Sekula ez dut inorekin topo egin tontorrean, gehienez ere zaldikume edo behorren batekin, eta goitian dabilen haizearen txistua zintzarrien tulun-tulunarekin nahasten da orduan. Nahasketa horrek eragin berezia du nigan, ez nuke asmatuko erraten zer den, baina ongi sentiarazten nau. Unanun beti dabil haizea, 650 metrotan, batzuetan leun eta gozo, bertzeetan bortitz eta busti. Lesakan nagoen ia guztietan joaten naiz bertara, ordu eta erdian han naiz. Bakarrik joatea gustatzen zait, belarretan jarri eta egon, horixe egiten dut, egon. Eta egonik, adi egonik, Unanu sentitu egiten da. Bistak ere mundialak ditu, luze egoten naiz begira: han Mendaur, hor Ekaitza, hemen Igantzi eta haraxeago Arantza, han Artikutza eta Bianditz, hor Sastrin… Igantzitik eta Arantzatik ere ez da urrun.

Bortziriek xoko eder aunitz dituzte, nik hau aukeratu dut zuendako. Nahi izanez gero, mendiko oinetakoak jantzi, ogi koxkorra eta txorixo muturra sartu motxilatxoan, eta han duzue zain. Ongi hartuko zaituzte, abegikorra da hagitz. ■

Wikipedia: lagun ezezagun hori

Mikel Iturbe Urretxa

Wikipedia, internauten gehiengoarentzat kontsulta tresna ezinbestekoa bihurtu da, nahiz eta atzean dagoenaren ezagutza gutxi izan. Askok erabiltzen dute egunerokotasunean, informazioa bilatzeko, askotan zer den ondoegi jakin gabe.

Zer da beraz, Wikipedia? Izena bera bi hitz desberdinetatik dator: Wiki eta Entziklopedia. Wiki-k, hawaieraz "arin, bizkor" esan nahi du, baina gaur eguneko teknologia bati egiten dio erreferentzia, edukia kolektiboki eraikitzea ahalbidetzen duen webguneari, hain zuzen. Aukera hori Wiki gehienetan dagoen *Editatu* edo *Aldatu* botoi batekin ahalbidetzen da, eta hainbat pertsonek eraiki dezakete webgunearen edukia. Wikipedian, pertsona orok du edukia editatzeko ahalmena. Bigarren hitza, entziklopedia, askoz ezagunagoa da, bertan gordetzen baitira hainbat jakintza ezberdin: erlijioa, artea, historia, fisika… Finean, giza ezagutzaren bildumak dira entziklopediak. Beraz, Wikipedia kolektiboki eraikitako giza ezagutza bilduma dela esan daiteke. Bere helburua, Jimmy Wales-ek, Wikipediako sortzaileak ederki laburtu zuen esaldi bakar batean:

> "Imajinatu mundu bat, zeinetan planetako pertsona orori giza-jakintza osorako sarbide aske eta doakoa ematen zaion. Horretan dihardugu".

Nahiz eta entziklopedia askok konpartituko luketen bisio noble hori, asko dira, entziklopedia arrunt batekin alderatuz gero, Wikipediak dituen abantailak.

Lehenik eta behin, edukiaren natura librea azpimarratu behar da. Erabiltzen dituen bi lizentzia libreei esker, edozer egin dezakegu bertako edukiarekin, bi baldintza betez gero: lan horren egiletza dagokionari aitortzea eta eduki berrerabili edo eratorria baldintza berdinekin kaleratzea, hirugarren pertsona batek ere libreki berrerabili ahal izateko. Era honetan sortu dira hainbat liburu tematiko, DVDetarako kopiak eta abar. Ohiko entziklopedia batean halakorik egiteak copyright bortxaketa serioa suposatuko luke.

Bigarrenik, proiektu eleanitza da. Hainbat eta hainbat hizkuntzek dute Wikipedia propioa, munduko hizkuntza handietatik, Afrikako hizkuntza tribaletara arte. Edozein hizkuntzak du Wikipedia propioa izateko eskubidea. Horrek proiektu banatua bihurtzen du entziklopedia hau, ez baita ente zentral bat, non hizkuntza bakoitza beste batzuen agindutara dagoen; kontrara, autonomia osoa duten hizkuntza desberdinetako Wikipediak diren nodoz osaturiko sarea da bere osotasunean Wikipedia.

Hirugarrenik, proiektuaren dinamikotasuna aipatu behar da. Paperezko entziklopedia bat argitaratu bezain laster zaharkiturik geratzen den bitartean (Sobiet Batasunak oraindik bere horretan dirauen makina bat entziklopedia izango dira oraindik etxeetan), sarean egoteak eta edozeinek editatzeko aukerak ahalbidetzen dute momentu oro edukia eguneraturik izatea. Albistea gertatu bezain laster, Internetera konektatu eta lerro pare bat idaztea bezain erraza da. Gainera, askatasuna ematen duenez edukia sortzeko, etengabe doaz horiek gehitzen, entziklopedia bera handituz eta aberastuz.

Laugarrenik, neutraltasuna helburu duen entziklopedia da Wikipedia. Hori edukiari zein antolaketari eragiten dion printzipioa da. Edukiari dagokionez, neutraltasuna ikuspuntu desberdinen baturarekin lortzen da, hots, gai baten inguruan dauden iritzi kontrastatu desberdinak adieraziz. Antolaketari dagokionez, Wikipedia ez dago inolako enpresen eskuetan, irabazi asmo gabeko elkarte bat arduratzen baita kudeaketa eta azpiegitura teknikoaz. Elkarte horretako administrazio-kontseilua Wikipediako eta bere proiektu senideak diren beste batzuetako kideek aukeratzen dute. Diruari dagokionez ere, dohaintza pribatu bitartez finantzatzen da, eta ez du inolako publizitaterik onartzen. Aipatu behar da era berean, auzolanean eraikitako proiektua dela hau eta inor ez dagoela bertan soldatapean edukiak gehitzen. Wikipedian dagoen testu oro

era desinteresatuan norbaitek bere denbora librean sorturikoa da.

Azkenik, esango nuke proiektuan parte hartzen dutenen horizontaltasuna dela beste abantaila handi bat. Aipatu den moduan, hizkuntza bakoitzeko proiektu bakoitza oso autonomoa da, eta praktikan, proiektuari eragiten dizkioten neurri guztiak bertan hartzen dira, bozketa bitartez. Bozketa hauetan, kide bakoitzak du boto bana, guztiek dutelarik balio bera, bai katedradunek, baita oraindik institutuan dabiltzan kideek ere. Horrek asko indartzen du proiektua, komunitateak berak jartzen baititu joko arauak; proiektua bere sentitzen du eta, beraz, inposaturiko arau batzuekin lortuko liratekeenak baino emaitza askoz hobeak lortzen dira, bai giroan baita edukian ere.

Ibilbidea

Wikipediaren hazia 2000. urtean hasi zen ernetzen. Orduan sortu baitzen Nupedia, eduki askedun sareko entziklopedia bat, non hainbat adituk idazten zituzten artikuluak, orduko puntako entziklopedien edukien kalitate eta profesionaltasuna bilatuz. Wikipediaren moduan, eduki libreduna zen, baina ez zen Wiki bat eta artikuluak sortzeko ahalmena zuten bakarrak aipaturiko soldatapeko adituak ziren. Proiektuaren izaera bera zen proiektuarentzat arerio nagusia, edukien sorrera geldoak ez zuelako interesik piztu sarean eta eduki horien sormena bultzatzeko erabiltzen ziren soldatak ordaintzea gero eta zailagoa zelako.

Arazo horiei aurrea hartuz, Jimmy Wales-ek, Nupediako sortzaileetariko batek, 2001ean Wikipedia sortu zuen, Nupedia bera edukiz elikatzeko asmoarekin. Baina, sortzaileak berak uste ez zuen erritmoarekin, Wikipediak laster utzi zuen atzean Nupedia, azken hau 2003an itxi zen, eta eduki guztia Wikipediara pasatu zen.

2002 bukaerarako 26 ziren Wikipedia propioa zuten hizkuntzak (tartean euskara) eta bi urte beranduago, 161. Ondoren etorri ziren proiektu senideak: Wikiztegia, Commons (irudi eta multimedia fitxategi libreen gordailua), Wikiliburuak (testu-liburuak) eta abar. Gaur egun, 281 hizkuntza desberdin daude Wikipedian, osotara 18 milioi artikulu baino gehiagorekin.

Euskarazko Wikipedia

Euskarazko Wikipedia 2001eko abenduaren 6an sortu zen, *Lurra* artikuluarekin. Ia hamar urte beranduago, ehun mila artikulu baino gehiagorekin, erreferentziazko euskal entziklopedia bihurtu da.

Gaur eguneko datuei begiratuz gero, berrehun pertsona baino gehiagok egin dute ekarpenen bat euskarazko Wikipedian azken hilabetean: komaren bat gehitzetik, artikulu luze osoak egiteraino. Horietatik, herena inguruk egiten ditu ekarpenak erregularki. Artikulu bakoitza batez bestean ia dozena bat aldiz editatu da, edukia gehitu edo eguneratzeko.

Bidean, hainbat lan egin da. Bertan nabigatzerako orduan lan handia egin dela bistan da, eta lan horri esker lortu zuen Euskarazko Wikipediak 2008ko Sareko Argia saria. Lan hori nola egin eta egiten den ordea, ez da horren bistakoa.

Funtzionamendua

Artikulu desberdinak sortu edota edukia gehitzea, goian dagoen *Sortu* edo *Aldatu* botoietan klik egin eta agertuko den testu-editorean, bertan agertzen den testua aldatzea edota berria sartzea bezain erraza da. Gordetzeko botoian klik egin eta momentuan egongo da eginiko aldaketa mundu guztiarentzat ikusgai.

Argazki eta multimedia fitxategiei dagokienez, ez dira Wikipedian gordetzen, aparteko biltegi batean baizik (Wikimedia Commons), hizkuntza guztietako Wikipediek erabili ahal izateko. Wikipediatik egiten den gauza bakarra bertako fitxategiei lotura da.

Artikuluei eginiko aldaketa guztiak gelditzen dira erregistraturik *Historia* izeneko zerrendan. Era honetan, posiblea da ikustea nork egin duen zer, eta noiz. Desegokia izanez gero eginiko ekarpena, desegiteko aukera dago, aurretik egon den artikuluaren edozein bertsiora atzeratuz.

Artikulu bakoitzari buruz zerbait eztabaidatu nahi baldin bada, badago horretarako aukera, artikulu bakoitzak baitu *Eztabaida* izeneko botoia. Ordea, Wikipediako kide jakin bati jakinarazi nahi baldin bazaio zerbait (lana koordinatzeko, esate baterako), kide horren lankide orrira jo behar da, gaur eguneko hainbat sare sozialetan dagoen perfilaren parekoa dena.

Era berean, badago kide guztiek parte hartzen duten foro nagusi bat, non estilo arauak, albisteak… argitaratu eta eztabaidatzen diren, gero, behar izanez gero bozkatzeko. Esan bezala, autonomia osoa dago eta erabaki guztiak kontsentsuz edo bozketa bitartez hartzen dira.

Ikus daitekeenez, komunikazio guztia plataforma bera erabiliz egiten da, inolako bilera, e-posta edo antzekoen beharrik gabe. Gainera, artikuluak bezala, komunikazio guztia publikoa da, garden-gardena bihurtzen du ez bakarrik edukia, baizik eta hori lortzeko bitarteko guztiak.

Edonork gehitu ditzake oraindik Wikipedian ez dauden edukiak. Ez da horrenbeste kezkatu behar esanez norberak ez duela ezer gehitzeko entziklopedia *serio* batean. Egon lasai, edukien gaiei dagokionez Wikipedia ez baita zorrotza: herriko biztanleria eguneratu, gustuko telesailaren pertsonaien biografiak gehitu… edonoren esku dauden egitekoak dira. Baita zure esku ere, irakurle. Sartu zaitez **http://eu.wikipedia.org** helbidean, egin ezazu klik *Izena eman* jartzen duen loturan eta izan zaitez zu ere inoiz euskaraz egin den entziklopedia handienaren parte. ■

Aktak idazteko hizkuntza-baliabideak

Esaldiak eskuinera luzatzeko trikimailuak

Edorta España Ocio
Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko itzultzailea

Aurkitu nuen, azkenean, etxera itzultzeko bidea, eta Ikaburuko leizeetatik, herriko errota ondoan hartua nuen ostatura joan nintzen, nire logelara. Ordenagailu eramangarria zabaldu eta idazten hasi nintzen.

Administrazioko itzultzaile-jardunean gehien aspertzen nauen testu-mota akta da, edo nahiago baduzue, batzar-agiria. Dakizuenez, aktek bileretan esan-eginak jaso behar dituzte, eta bertan, bileretan esandakoa, eztabaidatutakoa edo erabakitakoa gordeta geratzen da, dagozkion ondorioak sor ditzan.

Hizkuntzaren ikuspuntutik, akten ezaugarri nagusietako bat zehar-estiloa da, hau da, pertsona batek esandakoa beste batek kontatzen du; kasu honetan, idazkaria da kontalaria. Normalean hirugarren pertsonan adierazten da azaldutakoa, eta perpaus konpletiboz josita egoten da. Esate baterako, "Fulano de tal toma la palabra y manifiesta que …, Mengano de cual indica que…, Zutano responde que…". Alegia, perpaus konpletiboen erresuman sartu gara. Horrelakoetan, itzultzaileak perpaus konpletibo bat hartzen duenean, erabaki egin behar du zer egin esaldi horrekin: modurik kanonikoena erabiliz itzuli (*Halakoak …la adierazi du*) ala aire berriak aplikatuz itzuli (*Halakoak adierazi du …la*). Axularrekin izandako hizketalditxoan esan nuen moduan, "arazoa, ordea, osagarri luzea duten esaldietan hasten da". Izan ere, modurik kanonikoena erabiliz gero, mendeko esaldia luzea bada, asko kargatzen da aditz nagusira heldu arteko tartea, eta horrek zaildu egiten du mezua ulertzea.

Baina aktetan, perpaus konpletiboak ez ezik, badira beste zenbait koska ere. Hona hemen horietako batzuk eta aukeran dauden irtenbideak, multzoka:

A. **Hizlariaren berbaldiaren hasiera eta egitura iragarlea.** "A continuación, toma la palabra Kepa Bereziartua González y manifiesta que…". Nik honela ematen ditut berbaldi hasierak: "Ondoren, hitza hartu du Kepa Bereziartua González jaunak, eta adierazi duenez,…". Egitura horren abantaila da mendeko perpausa desagertu egiten dela aurkezpen-diskurtsotik, eta mezuaren egitura deskargatuta geratzen dela. Garai batean, antzeko formula erabiltzen nuen, baina konpletiboa erabiliz: "Ondoren, hitza hartu du Kepa Bereziartua González jaunak, eta adierazi du …la". Kostatu zait erabakitzea, baina orain esaldia deskargatzearen alde egiten dut, alegia "adierazi duenez,…". Hizkuntza-aberastasuna, agian, murritz gelditu ko da horrela, baina akta inork irakurtzen badu, eskertuko duelakoan nago, ez baita *-la* mendekotasun-atzizkiaren zain egon behar.

   Bestalde, oso garrantzitsua da hizlarien berbaldien hasierak erraz identifikatzea, eta horretarako, zer hobea beti formula bera erabiltzea baino. Aspergarri gerta liteke jokamolde hori, baina aktak eurak baino aspergarriagoak ez dut uste. Hala ere, gogaikarriak izanda ere, berbaldihasiera beti formula berarekin erabiltzeak erritmo moduko zerbait ematen dio testuari, eta hori ikusten dugun bakoitzean berbaldi berri bat iragartzen ari den seinale (egitura iragarlea). Guk formula hori behar den guztietan erabil genezake, nahiz eta sorburu-testuan aurkezpen-formula bat baino gehiago erabili.

B. **Perpaus konpletiboak.** Aurreko atalean, konpletiboak saihesteko modu bat proposatu dugu, baina horrek ez du esan nahi perpaus-mota hori baztertu behar denik, ezta gutxiagorik ere. Baina bai, ordea, perpaus horien aditz nagusia perpausaren hasierara pasa, hau da, honela idatzi beharrean "Aurreko legegintzaldiko ordenantza arauemaileen aldaketa guztiak legez aurkakoak direla eta udalez gaindiko eskumenak inbaditzen dituztela adierazi du Urlia jaunak", hobe honela idatziko bagenu: "Urlia jaunak adierazi du aurreko legegintzaldiko ordenantza arauemaileen aldaketa guztiak legez aurkakoak direla eta udalez gaindiko eskumenak inbaditzen dituztela". Eta eman dudan adibidea ez da oso luzea, baina askoz luzeagoak ere badira izan.

C. ***-enez* atzizki iragarlea eta *ezen* partikula.** Eman berri dudan adibidean

agertu bezala, perpaus konpletiboa kentzeko era bat moduzko perpaus bihurtzea izan liteke. Alegia: "Urlia jaunak adierazi duenez, aurreko legegintzaldiko ordenantza arauemaileen aldaketa guztiak legez aurkakoak dira eta udalez gaindiko eskumenak inbaditzen dituzte". Edo, Sarako eskolako estiloko baliabidea erabiliz: "Urlia jaunak adierazi du ezen aurreko legegintzaldiko ordenantza arauemaileen aldaketa guztiak legez aurkakoak direla eta udalez gaindiko eskumenak inbaditzen dituztela".

Sarri, konplexutasun handiko testuetan, mendeko perpaus baten barruan, beste mendeko bat agertzen zaigu. Esate baterako: "El portavoz del grupo municipal BATERA señala que si se llega a aprobar el reglamento de uso de las piscinas municipales tal y como se ha presentado en este Pleno, interpondrán contencioso-administrativo contra dicho acuerdo". Euskaraz, honela eman liteke: "BATERA udal-taldeko eledunak adierazi du udal-igerilekuak erabiltzeko araudia udalbatzar honetan aurkeztu den moduan onartzen bada, bere taldeak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarriko duela dagokion akordioaren aurka". Gramatikala guztiz, baina sarri esan ohi denez, gramatikaltasun hutsak ez du beti komunikazioa bermatzen. Darabilgun kasuan, gainera, perpaus konpletibo baten barruan, baldintzazko perpausa txertatuta dago, eta bai batak, bai besteak, esaldiaren amaieran daramate esanahi-egitura: aurrizkia (*ba-*) eta atzizkia (*-la*); beraz, perpausa amaitu arte itxaron behar da zer esan nahi duen ulertzeko.

Artikulu honen izenburuak dioen erara, nik esaldiak, ahal dela, eskuinera luzatzeko hautua eginda daukat, hau da, aditza ahalik eta gehien aurreratu, eta osagarriak, ahal den neurrian, eskuinera bota, egitura iragarleak erabiliz. Beraz, horrelako egiturak erabilita, honela eman liteke: "BATERA udal-taldeko eledunak adierazi du ezen, udal-igerilekuak erabiltzeko araudia udalbatzar honetan aurkeztu den moduan onartzen bada, bere taldeak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarriko duela dagokion akordioaren aurka". Edo nahiago bada: "BATERA udal-taldeko eledunak adierazi duenez, baldin eta udal-igerilekuak erabiltzeko araudia udalbatzar honetan aurkeztu den moduan onartzen bada, bere taldeak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarriko du dagokion akordioaren aurka". Aukera batzuk egon daitezke, baina honakoa ez behintzat: "BATERA udal-taldeko eledunak udal-igerilekuak erabiltzeko araudia udalbatzar honetan aurkeztu den moduan onartzen bada, bere taldeak dagokion akordioaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarriko duela adierazi du". Italo Calvinok esango zukeen moduan, *antilingua* litzateke antolamendu hori.

D. **Hizlarien galderak.** Batzar batean, oso ohikoa da hizlariek galderak egitea, eta, halatan, idazkariak jaso egin behar ditu: "La portavoz del grupo de concejales no adscritos pregunta si el Ayuntamiento se ha puesto en contacto con los miembros de la Junta de Compensación del Sector Errotabarri". Betiko moduan, era askotara eman liteke itzulpena. Erarik hertsienean, honela: "Atxiki gabeko zinegotzien taldeko eledunak Udala Errotabarri sektoreko Konpentsazio Batzarreko kideekin harremanetan jarri ote den galdetu du". Baina, galdera bat dagoenez, eta zehar-estiloan gaudenez, zehar-galderaren hitz iragarlea hor daukagu, erabili zain, honela: "Atxiki gabeko zinegotzien taldeko eledunak galdetu du ea Udala harremanetan jarri den Errotabarri sektoreko Konpentsazio Batzarreko kideekin". Eta galdetzen dena esaldi oso bat barik, zerbaiti buruzkoa bada (*pregunta acerca de la contratación del polideportivo*), honela desmunta liteke: "…eledunak galdera egin du kiroldegiko kontratazioari buruz".

E. **Eta galderen atzetik, erantzunak.** "El Presidente de la Comisión le responde que la Diputación está estudiando la posibilidad de instalar en ese sector un medidor de niveles de ruido en vías urbanas". Perpaus horren aditz nagusiak (*preguntar/erantzun*) mendeko perpaus konpletiboa eskatzen du, eta aurretik azaldutako arrazoiengatik, aurrera pasatuko dut aditz nagusia: "Batzordeburuak erantzun dio Aldundia hiri-bideetako zarata-mailen neurgailua jartzeko aukera aztertzen ari dela". Eta zer deritzozue beste modu honetara idatziko bagenu? "Batzordeburuak erantzun dio esanez Aldundia hiri-bideetako zarata-mailen neurgailua jartzeko aukera aztertzen ari dela". *Esanez* horrek ez du ezer gehitzen, baina lagundu bai: aditz nagusiak eskatzen duen *-la* atzizkiaren iragarle gerta daiteke.

F. **Hizlari beraren interbentzioan esanak.** "La Sra. Alcaldesa manifiesta que… Indica que… Señala que…". Hemen, lehenengo tentazioa da aditz nagusia aurkeztu eta atzetik konpletiboa, eta egitura hori gaztelaniaz adina bider errepikatu. Baina gaztelaniazko akta batzuetan ikusitako ereduari jarraiki, beste aukera bat ere badago: aditz nagusiak elipsian utzi, eta perpaus konpletiboak baino ez eman: "Alkate andreak adierazi du ….la. …la. …la". Zenbait kasutan nahikoa baliagarri gerta dakiguke.

Eta horrelaxe. Itzali nuen ordenagailua, jantzi nituen mendiko botak eta Otsondo Ttipirantz abiatu nintzen, iturri fresko baten bila. ■

Gardentasuna bestelako politika baten erakusgarri

Jordi Joly
Zuzendaria. Europe, Middle East & Europe, Palladium, Inc.

Asko idatzi eta hitz egin izan da gardentasunaz eta gardentasunaren onurez. Alderdi politiko guztiek defendatzen dituzte gardentasunaren balioak, eta sistema politiko demokratikoaren berezko osagaitzat jotzen, sistema hori etikan eta zuzenbide-estatuan oinarritzen bada behintzat.

Hori hala izanik, harrigarria gertatzen da zalantzarik sortzen ez duen jarrera politiko horren eta betetze maila eskasaren artean dagoen alderantzizko joera ulertezina, nahiz eta zorioneko salbuespen nabarmen batzuk ere badiren. Ohikoa denez, esaten duguna gauzatzeko orduan, ezinean geratzen gara, asko kostatzen zaigu eredu izatea, eta ez dugu ikusten jarrera horrek zuzen-zuzenean eragiten duela konfiantza orokorrean. Zerbait egin nahi izatetik benetan egitera iristeko, ibilbide luzea dugu aurrean, eta amaieraraino heltzeko, kudeaketa eta profesionaltasuna izan behar dira bidelagun; ez dago beste bidezidorrik.

Barne Produktu Gordinaren % 56 (15eko Europar Batasuneko batez bestekoa, OCDEren azken txostenaren arabera) arlo publikoak kudeatzen du. Ekonomiak sortzen duenaren erdia baino gehiago, azkenean, politikak kudeatzen du; alegia, adar exekutiboak, administrazio publikoak (nik neuk nahiago izaten dut "erakunde edo antolakunde publikoak" deitzea). Kopuru hori oso adierazgarria iruditzen zait, denok garbi ikus dezagun zer nolako garrantzia duen ordezkari politikoek eta horiei laguntzeko dauden antolakuntzako egiturek diru publikoa ondo kudeatzeak.

Nire ikuspegiaren arabera, erakundeetako eta politikako gardentasuna dagoeneko ezin da izan bete beharreko balio etiko eta moral bat; horrek berez behar du (garbi dago asko oso urruti daudela baieztapen horretatik, baina zilegi bekit esan nahi dudala azaltzea).

Kultura politiko klasikoarentzat, politika, arte gisa hartuta, informazioa kontrolatu eta erabiltzeko gaitasuna da, ordezkatzen den aukera politikoaren interesak ahalik eta ondoen aurrera eramateko. Lastima da politikari "klasiko" horiek aukerarik ez izatea beren jarrerarekin neurri handiagoan bat zetorren mundu batean bizi izateko; zoriontsuak izango ziren. Niccolò Machiavelli-k izan zuen aukera, XVI. mendearen hasieran. Halakoak, ordea, oraindik ez dira ohartu mundua aldatu egin dela, eta guztiontzat aldatu dela, baita politikarientzat ere. Informazioa demokratizatzeak, berehalako erantzuna duten plataforma teknologikoen bidez (esate baterako Google) informazioa era magikoan eskuratu ahal izateak, politikan aritzeko modu baten amaiera ekarri du, eta horren ondorioz, bidegurutze garrantzitsu batera iritsi da arte hori: jarduteko modua aldatu, edo ez du gizartearen konfiantzarik izango; zientzia politiko historikoaren hainbat euskarri hankaz gora geratu dira. Gerta liteke demokrazia ordezkatzailea kontzeptuak legitimitatea galtzea, eta hori aurreratua izan nahi duen gizarte batentzat oso larria da.

Gure ordezkariengan dugun konfiantza berehala berreskuratu beharrean gara, eta hori politikak baino ezin du egin, kalitatez jardunda, seriotasunez, gaitasunez eta konpromisoa izanda; lidergo indartsuarenak diren berezko balioak berreskuratu behar ditu, eta badakigu handia dela horien gabezia gaur egungoa bezalako garai global, zail eta konplexuan.

Egoera ez da goxoa, baina positiboak izan eta pentsatu behar dugu arazo handien garaian sortzen direla aukera handiak ere, eta uneotan premia ikaragarria dago, demokraziaren balioak benetan estimatzen dituztenentzat, ordezkaritzan oinarritzen den sistema honek beste urrats bat eman eta ez dadin soilik lehenengo iristen denarentzako "ordezkaritza-sistema" izan; pertsona eta lantaldeek osatutako ordezkaritza-sistema behar dugu, eta ideologiaz gainera, egiten dituzten proposamenak aurrera eramateko gaitasuna ere eskatu behar zaie. Beraz, ordezkaritzan oinarritutako demokrazia betearazle baterantz jo beharrean gara; gai izan eta gertu egon behar dugu, gaur egungo mundua konplexua baita, eta gure herriarentzat eta gure etorkizunarentzat benetan onena nahi badugu, prest egon behar dugu lehiakortasunean aurrera egiteko jokaleku globalean.



Ongi etorria bedi beste politika-modu baten garaia; baina gizartearen konfiantza lortu nahi badu, ordezkaritza politikoa izateak dakarren balio handia beregana tu nahi badu, kudeaketarantz jota izan beharko du, gauza guztiek errendimendurik handienean funtziona dezaten lortuta, eskura dauden baliabideekin bat. Amaitu da gastu amaigabearen garaia, eskaera guztiei erantzuteko aldia, baliabideak direnak direla kontuan izan gabe.

Azken aldian kexa asko entzuten dira diru-sarrerak gutxitzearen ondorioz gastuetan murrizketak egin behar direlako, baina argudio horrek tranpa garrantzitsua du: ez genuena ari ginen gastatzen, eta ezin da murriztu sekula izan ez duzuna; orain, besterik gabe, zuhurtziagabekeria larri hori ordaintzen ari gara.

Aurrekontu publikoek baliabide-iturri oso garrantzitsua izaten jarraitzen dute, eta onartezina da erakunde batzuek fotokopiak egiteko ere ez izatea. Eta hori gertatzeko arrazoia estrategikoki gauzak argi ez izatea da. Izan ere, politika kalitatezkoa bada, onartuko du baliabideak mugatuak direla, eta horren ondorioz, erabaki argiak hartu beharko ditu, printzipio on batetik abiatuta: alde batetik, zer egingo dugun erabaki beharko dugu, eta horrek, bestetik, ondorengoa ere badakar, alegia, zer ez dugun egingo zehaztuta izatea. Hor hasten gara erantzukizunezko politika egin eta, erantzukizunean oinarritutako erakunde publikoak izanik, egin beharreko egokitzapenak egiten. Sendotze fiskal (murrizketa) inteligentea da, ezarritako lehentasunen arabera egiten delako. Bi gauza behar dira, aldi berean: estrategiak argi izan eta aurrekontuez eztabaidatzea. Aurrekontu "klasikoarekin" dagoeneko ez da nahikoa.

Helburu horiek guztiak lortzeko, gardentasuna bidelagun aparta da, mende honek dituen erronkei benetan aurre egin nahi dieten gobernuentzat behintzat. Arazoei berehala egin behar zaie aurre edozein gizartetan, eta politikaren lana horiek konpontzea da, ez estaltzea edo garrantzia kentzea. Ordezkapenean oinarritutako kalitatezko demokrazia izateko, politikariek ausartak izan behar dute, eta erakundeen barruko errealitatearen –gertatzen denaren– berri kontzientziaz eta gardentasun handienaz eman behar dute, gogoko izan edo ez. Gardentasunez aritzea erraza da denak ondo funtzionatzen badu eta ez badago ezkutatu beharreko ezer; baina, gauza lotsagarri asko pilatzen bada eta denek ikusteko moduan jarri nahi ez badira, kudeaketa oso konplexua bihurtzen da, edo etika eta erantzukizunaren printzipioa oso erroturik eduki behar da errealitateari aurre egin eta erabateko gardentasunez jarduteko.

Gardentasuna bidelagunik onena da politika kalitatezkoa izan eta herritarren konfiantza eduki nahi bada. Hori esatea oso "politikoa" da. Konfiantza baldin bada edozein gobernuk lortu nahi duena, batzuek ez dute ikusten zenbateraino izan daitekeen onuragarria gardentasunarekin bat egitea, nahiz eta batzuetan politikaren etsai nagusi gisa agertu.

Beti kontuan izanik gogoan dugun politika-moduak aurrera daraman gobernulanaren erantzule izan nahi duela, eta herrialdea estrategikoki pentsatutako lekura eraman behar duela, erabateko gardentasunak tentsio positiboa sortzen du erakundean. Zerbait gaizki ari bada, nor gobernua baino hobea konpondu beharrekoa konpontzeko?, hura baita betearazteko tresneria esku artean duena, eta baita betebeharra ere. Kalitatezko politikaren benetako konpromisoa arazoak konpontzea izan behar da, ez horiek ezkutatzea. Nork bere buruari erabateko gardentasuna eskatzeak, oso betearazlea den erakunde publiko batean, etengabe adi egotea esan nahi du, edozein unetan erantzuteko moduan izateko.

Segi dezagun mataza askatzen. Funtzionatzen ez duenari aurre egiteko moduko antolakunde profesionala behar badugu, horrek esan nahi du arlo publikoko zuzendaritzak ere bat etorri beharko duela ideia horrekin, ez baitago inongo erakunderik, ez publiko ez pribaturik, eraginkorra eta efizientea izatea lortuko duenik, zuzendaritzako kideak erantzukizun horiei aurre egiteko moduan ez badaude.

Gardentasunari esker, konprometitua eta bere buruarekin zorrotza den politika izan dezakegu, baina, aldi berean, kudeaketaren garrantzi politikoa zein den ulertzen duena; izan ere, horrela baino ez baitu lortuko politika horrek herritarren konfiantza berreskuratzea. Kudeaketa publiko horretan lider diren zuzendaritzako kideek funtzio publikoan lan egiten duten pertsonak motibatu eta horiei etekinik handiena ateratzen jakin behar dute. Ez diot inondik ere baliorik kenduko antolakunde publikoetan dagoen giza kapital ikaragarriari, profesional bikainak baitaude bertan, baina, argi eta garbi esanda, ezin dituzte gaitasunak gauzatu, esku hartzerik nahiz interes publikorik ez dagoen gune batzuetan dihardutelako, lidergorik eta zuzendaritza egokirik gabe.

Azken batean, gardentasuna etikatik eta ustelkeriaren aurkako borroka soiletik askoz haratago doan zerbait da; bestelako politika bat egiteko katalizatzailea izan daiteke, gizartearen konfiantza berreskuratu ahal izateko. ■

IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) itzulitakoa: **Joseba Urkia**



Eskriben kasta

Iñaki Iñurrieta Labayen

[Artikuluak IVAPek antolatutako ikastaro honi egiten dio erreferentzia: "Itzulpenaren oinarriak itzultzaileak ez direnentzat"].

Lehen zibilizazio handiek, Mesopotamia eta Egiptokoek, eskriba edo idazlarien kasta sortu zuten duela 5.000 urte inguru. Kasta berezi haren eginkizuna ez zen huskeria: inperio handi haiek antolatzea; nola eta sinbolo batzuk papiroetan edo buztin-tauletan markatuta jarriz. Herri xeheari magikoa, jainkozkoa, iruditu zitzaion hura: zirriborro batzuen bitartez, mundua ordenatzea. Teknika hura menderatzen zuena ez zen edonor.

Kasta haren oinordeko dira gaur egun, harrezkero milaka urte joan badira ere, aldez edo moldez testu idatziekin tratuan, borrokan, harreman gazi-gozoetan egunero jarduten duten hainbat administrazio-langile (eta kasta hartatik datoz, azken batean, beste idazlari guztiak ere: poetak, narratzaileak, kazetariak, itzultzaileak, irakasleak…).

Arrasto hori aspaldi galdu zela iruditu arren, lehen eskriben garrak bizirik dirau administrazio-idazlari batengan, noiz eta, erdara ilunean idatzitako testu bihurri bati mila jira eta buelta eman ondoren, euskara irakurgarrian jartzea lortzen duen bakoitzean; plazer esanezin bat sentituko du halakoan, eskribaren su sakratuak sekretuan bizi duen seinale.

Eskribaren teknikak hizkuntza guztietan ditu zailtasunak. Euskararen kasuan, ez dago esan beharrik, inguruko hizkuntzek ez dituzten zailtasunak ditugu; tipologiari, corpusari zein estatusari dagozkionak[i]. IVAPek antolaturiko "Itzulpenaren oinarriak, itzultzaile ez direnentzat" izeneko ikastaroan, hain zuzen, hainbat sintaxi-zailtasun jorratuko ditugu, euskaraz testuak ahalik eta txukunen osatzeko ahaleginean aurkitu ohi ditugunak.

Itzulpengintza probaleku ezin hobea da euskal testuak zertzean agertu ohi diren arazoez jabetzeko. Itzultzailea zorrotz irakurtzera behartuta dago; sorburuko testuarekiko kontraste horretan, irakurketa arruntean aurkitzen ez diren ñabardurei erreparatu behar die. Egunerokoa du borroka hori, eta, arituaren poderioz, *vademecum* halako bat osatuz doa.

Eginkizun horretan, jakina, ezinbesteko lagungarri ditu era bateko edo besteko estilo-liburu gero eta ugariagoak, non eguneroko jardunean aurkitutako arazo askorentzako soluzioak eskaintzen baitzaizkio, formula edo errezeta bihurturik. Beste arazo askorentzako, ordea, berak asmatu behar izaten ditu irtenbideak; ahal bezala atera behar izaten du atakatik.

Ez dakit ikastaroaren izenburua egokiena den. Beharbada, norbaitek esperoko du ikastaro horretan itzulpen-teknikak, arau nagusiak, arazoen eta konponbideen sistematizazio bat eskainiko direla; edo itzulpengintzaren ulerbide teoriko bat. Ikastaroa, izan, praktikan oinarritutako ikastaroa da, lantegi gisa planteatua: parte-hartzaileek testuak itzultzeari ekingo diote, eta, itzuli ahala, arazoak agertuko zaizkie; ondoren, arazo horiei eman dakizkiekeen konponbide batzuk ikusiko dituzte.

Hala, batetik, eguneroko jardunean aurkitzen duten problematika ekarriko dute parte-hartzaileek; bestetik, irakasleak bere jardun errealean aurkitu izan dituen irtenbideak azalduko ditu. Batzuek eta besteak zenbateraino egiten duten bat, hortxe jokatuko da ikastaroaren arrakasta. Horixe baita ikasteko modurik aproposena: norberari agertzen zaizkion arazoetatik abiatuta.

Irakurgarritasuna ardatz

Irakurtzeko idazten dira testuak. Askotan gertatu ohi da testu bat idazten duenak gauza bat esan nahi duela, gauza bat

[i] Inguruko hizkuntzek ere badute arazo larririk; ez da txikiena ortografia eta ahozko hizkuntza elkarretarik urrun egotetik datorrena, akats larriak eragiten baitizkie herritar frantses edo ingelesei idaztean. Euskaraz, alde horretatik, zorteko gabiltza, euskara idatzia eta mintzatua –fonetikoki, bederen– elkarren hurbileko izateari esker.



esan uste duela testuan, eta irakurleek beste zerbait ulertzen dutela. Beraz, testuak idazten dituenak testu hori irakurriko dutenen lekuan jartzen jakin behar du. Inor horretan saiatzen bada, itzultzailea saiatzen da. Itzultzaileok bietarik gara, izan behar dugu, gure jardunean: irakurle zorrotz, hitzez hitz eta esaldiz esaldi jorratzen baitugu sorburuko testua; eta idazle zehatz, ahalik eta ondoen ulertutako testu hori euskara irakurgarrian ematea lortzen dugunean.

Irakurgarritasunaz aritzean, itzultzaileok bide-seinaleen adibidea erabili ohi dugu. Itzultze-lanean, ohartu gara jatorrizkoaren pareko testua ematean, maiz, euskarazkoak ez zuela berdin korritzen (esamolde hori asko erabiltzen zen garai batean gure artean). Autoan goazenean bezala: errepideko bide-seinaleak egokiak badira, errazago gidatuko dugu autoa; ez dugu etengabe balazta sakatu beharrik izango, edo atzera egin beharko, okerreko bidetik sartu garela-eta; komeni den abiaduran sartuko gara bihurguneetan…

Ikastaroaren lehen helburua partaideak arazo horiez –irakurgarritasunaren ingurukoez– ohartzea da; irakurlearen lekuan jartzea. Ikustea, esate baterako, zer-nolako arazoak dakartzan euskararen izaera pospositiboak (erdal artikulu, preposizio eta juntagailuen ordez, deklinabide-atzizkiak eta menderagailu-atzizkiak edukitzeak) sintagmen arteko mugak argi ezartzeko. Edo ikustea hitzen ordena batek edo bestek zenbateraino errazten edo zailtzen duen irakurketa… Zailtasun horien aurrean, ditugun baliabideak ondo erabiltzea da kontua; alegia, bide-seinaleak (puntuazio-markak, marka prepositiboak…) egoki baliatzea.

Nabarmena da joera batzuk nola ari diren zabaltzen idazlari-jendearen artean. Aditza aurreratzearena, esate baterako (zehazkiago: aditzaren aurrean mintzagai-galdegaiak besterik ez utzi eta beste guztia atzera pasatzeko gomendioa). Joera hori onartua dute, dagoeneko, itzultzaile askok (ez hainbeste, oraindik, beste idazlari mota batzuek).

Beste gomendio batzuek traba gehiago aurkitzen dituzte bidean. Puntuazioari dagokionez, batez ere gaizkiulertuak eta anbiguotasunak argitzeko kasuak landuko ditugu. Berez, puntuazioak berak merezi du ikastaro oso bat, hau baino luzeagoa[ii]. Ikusiko ditugu, halaber, nominalizazioak, aposizioek, erlatibozkoek… sortzen dituzten arazoak.

Hori guztia egingo dugu, 15 orduko ikastaro batean egin daitekeen neurrian.

Eskriba haien ezpalekoa…

…da itzultzailea ere, esan bezala. Berak ere badu "inguru latz bat menderatzeko premia; borroka horretan bizi da; hori du bere egia. Ekin eta ekin bilatzen ditu –saiatze horretan ezin gelditu– jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkituz, lege zaharrak noizbait berrituz…". Xabier Leteren *Izarren hautsa* olerkiko hitzek balio digute itzultzaileon jarduna deskribatzeko ere[iii].

Hain juxtu ere, begira zer idatzi zuen beste idazlari handi batek, Koldo Mitxelenak, harira datorkigun zerbaiti buruz:

"Hitz ordenaz-eta aurkitu diren legeak ez dira idazlea estekatzeko kateak, honen kemenak gehi ditzaketen lanabesak baizik, hitzen indar ezkutua nabarmenduaz. Idazlearen eginkizuna erraz da adierazten, gaitz betetzen: hizkuntzari bere burua menderatuaz, hizkuntza menderatu, hizkuntza legeen lokarriak eta trabak, airea hegaztiarentzat bezala, sostengu eta laguntza bihur daitezen".

Eginkizun hori, poeta eta estilista literario bikainenen eginkizuna ez ezik, egunero legeak, dekretuak, arauak, xedapenak, ofizioak, eta abar euskara ulergarrian ematen saiatzen diren eskriba saiatu guztien lana ere bada. ■

ii Aurki argitaratzekoa da Juan Garciaren *Puntuazioa egoki erabiltzeko gida*. Erreferente nagusietako bat izan dugu ikastaroa prestatzerakoan. Izan ere, hark proposatzen duen puntazio-sistema ezagutu beharra dugu idazkariok, gero, jakinaren gainean, sistema hori oso-osorik edo partez beteko dugun erabaki ahal izateko.

iii Ez da gehiegikeria poeta baten hitzak hona aldatzea. Idazlari guztiok senide izanik, ohitu behar genuke hitzak elkarri mailegutan uzten.

Ia denaren historia

Isabel Martin

–Hartu arnasa, lasai.

–Itxi begiak, beldur barik.

–Utziozu haizeari zure azala laztantzen.

–Adi! Alboan txori batek hitz egiten dizu.

–Askatu gerrikoa, sabelean inolako presiorik izan ez dezazun.

–Erantzi arropa, suabe, eguzkiak bere berotasunez besarka zaitzan.

–Eutsi gogoz eta gogor arkatzari, zu zeu idazten ari zarela konturatzeko.

Zer gehiago behar duzu bizirik zaudela ohartzeko?

Momentu honetan duzun guztia ia denaren historia da.

Bizitzen ari zaren unea baino ez da existitzen, ez zuretzat, ez inorentzat.

Pasatu dena pasatu da betiko.

Ailegatuko dena ez dakigu inoiz ailegatuko den.

Zein da zure kezka?

Zama handia daramazu gainean, oraindik ez duzu ikasi bizitzen.

Zer dela-eta kezkatzen zaitu aurreko urtean gertatu zenak, lagunak esan zizunak, atzo ahaztu zitzaizkizunak? Baina, ez al da joan?

Ez dago inon, hau da, ez dago inon.

Egin saiaketa atzokoan:

–Hartu arnasa.

–Utziozu haizeari azala laztantzen.

–Adi! Txori batek hitz egiten dizu…

Ezin duzu. Nahi bestetan saiatu ahal zara, baina jakin ezazu ez duzula lortuko.

Buruan duzun ideia-irudi batek atzoko arnasa, haizea, azala, laztana… gogorarazten dizkizu. Baina jada ez dago. Atzoko egunak ezin zaitu besarkatu, ez musukatu, ezta mindu ere. Joan egin da. Onartu.

Etorkizunak kezkatzen zaituela?

Egin proba biharko egunean:

–Askatu gerrikoa, inolako presiorik izan ez dezazun.

–Erantzi arropa eguzkiaren berotasunak besarka zaitzan.

–Eutsi gogoz eta gogor arkatzari zu zeu idazten zaudela konturatzeko.

Ezin duzu. Ez da posible. Egin saiakera berriro ere, gura baduzu. Baina, jakin ezazu ez duzula lortuko.

Zer dela-eta kezkatzen zaitu etorkizunak?

Biharko eguna ez da existitzen.

Buruan ideia-irudi bat duzu. Horrek bizipenak sorrarazten dizkizu, onerako zein txarretako. Baina, adi, hori ez zara zu. Biharko *zu* ez da existitzen.

Hartu arnasa berriro ere, utziozu eguzkiari zure azala berotzen, ireki belarriak eta inguruko ahotsak entzun, itxi begiak. Hor al zaude?

Bai, hor zaude. Zuzen-zuzenetik arnasa hartzen ari zara, entzuten zaude.

Ez galdu momentu hau.

Ez izan presarik.

Ez joan inora.

Geldi hor segundo baten.

Ez mugitu.

Pentsatu sentitzen ari zaren guztian.

Zeu zara.

Zeu zarela konturatzeko ez galdu unea.

Adi! Ez zara atzokoa eta inoiz ez zara izango biharkoa.

Ez duzu ezer.

Ez kezkatu.

Horrek ez dizu axola.

Ez galdu denbora.

Ez gutxietsi bizitzen ari zaren minutua.

Hori da duzun guztia.

Atzokoa eta biharkoa existitzen ez bada, hau da duzun guztia.

Ez ahaztu inoiz, hori zure maxima delako.

Zu zeu zara momentua, denbora.

Zu zara orainaldia.

Ahazten bazaizu, egizu berriro ere proba:

–Hartu arnasa.

–Utziozu eguzkiari zure azala berotzen.

–Entzun…

Eta hartu gogoz eta gogor arkatza, hitzak doazen bitartean, zer edo zer ere badoa. Baina, lasai, zuk han jarraitzen duzu.

Ez izan presarik.

Ez larritu.

Nora joan behar duzu?

Zuk inora ez.

Zer egin behar duzu?

Zuk, ezer ez.

Maite ezazu momentua, segundoa, unea, tartea. Hori da duzun guztia. Hori da ia zure denaren historia. ■



Urdanetaren Itzulbidaia. Herioa lagun

Koro Irastorza Etxeberria
Historian lizentziatua eta irakaslea

1565eko ekainaren 1ean, Salcedoren agindupean zegoen San Pedro naoak Itzulbidaia aurkituko zuen bidaiari eman zion hasiera. Andres Urdaneta ordiziarra izan zen ibilaldiaren nondik-norakoa gidatu zuena eta, urte luzez egindako ikerketez gain, bere gaztaroan bizitako esperientzietan oinarritu zen Itzulbidaia diseinatzeko.

Ondorengo 250 urtez luzatuko zen epean, galeoiek Manila-Acapulko joan-etorria errepikatuko zuten behin eta berriro. Negozio izugarriak zeuden tartean, baina heriotza ere ez zen urrun ibiliko. Eskorbutoak, beriberiak, ur faltak, lizundutako eta harrez lepo zeuden jaki erdi ustelduek, ekaitz izugarriek eta itsaso beldurgarriek maiz eragiten zuten marinelek bere buruaz beste egitea… Bai. Herioak ohorezko lekua izan ohi zuen bidaia haietan.

Eskifaiak bazekien arrakasta izateko ura ezinbesteko baldintza zela eta arduradun bat izendatzen zen haren kontrol eta banaketarako. Euriaren ura jasotzen ahalegintzen ziren eta, garbitasunerako, itsasoko ura erabiltzen zuten, baina, askotan, ibilaldiaren erdian, bidaiari bakoitzari esleitutako anoa jaitsi beharrean izaten ziren, likido preziatua ahituko zen beldur.

Sei hilabete iraungo zuen zeharkaldiak eta errezoak ez ziren nahikoak giroa lasaitzeko. Debekatuta zeuden karta jokoak, baina maiz zigortu behar zen horretan zebilena. Juramentu eta biraoek ere bazuten berea eta muturrekoa jarri ohi zitzaion bekatariari lehen aldian; bigarrenean, ordea, burdina bero batez zulatzen zitzaion mingaina. Mozkorrak ere lau egun eman behar zituen lotuta, irauteko ura eta ogia besterik gabe.

1565eko ekainean Cebun hasi zen esperientzia hura ez zen urriaren 8ra arte bukatuko, Acapulcon. Ez zen nolanahiko ahalegina eta hainbat porrot izanda zeuden aurrez. Urdanetak ondo baino hobeto zaindu zituen hornizioa eta ura, beharko zuten jendea eta denbora zehatz-mehatz neurtuz. Lasterbidea aurkitu behar zen. Abiadura azkarrena ezinbestekoa zen. Akats txikienak *heriotza* erakarriko zuen eta bidaiariek ez zuten mamuen eskuartetik alde egiterik izango.

> *De mas de [e]sto, da una enfermedad en esta Mar del Poniente a los hombres que se les crecen y podrecen las enzias y mueren muchos de [e]sta enfermedad, que a nosotros solamente en una nao se nos murieron desde el estrecho hasta las yslas quarenta hombres y aun a los que an ydo desde a Nueua España para la Especería no les a dexado de dar esta enfermedad empero como la nauegacion se haze em (sic) poco tiempo y lleuan bastimentos frescos, no haze tanta ynpresion como haze en los que ban desde España por el Estrecho.*

Urdanetak gertutik bizi izan zuen bere gaztaroan Magallanes-Elkano espedizioaren sufrikarioa. Eguraldi malapartatua, gosea, egarria, gaixotasuna, oinazea… eta gizakiak elkarren aurka. Mesfidantza eta inpotentzia. Itzulbidaiaren bezperan, eskifaia osatzeko orduan, beharrezko jo zuen gizon haien prestakuntza:

> *Porque en esta tierra ay ffalta de offigiales de todos los offigios y los nagidos en ella se aplican pocos a deprender ofigios semejantes como son menes ter para el despacho de las armadas. Paresge que se agertaria en que con peliesen a muchos mangebos que andan echo bagamundos a que deprendie sen los tales offigios espegialmente a mestizos y mulatos e negros orros, a vnos a ser carpinteros a otros a calaffates e otros a cordoneros e a otros a torneros y a otros a herreros para que hubiese abundangia de ofigiales de todos géneros. De mas que sera bien que se ensene alguna buena cantidad de negros esclabos conprados de la Rreal Hazienda e con tal probeymiento abría buen recaudo de offigiales de todos offigios.*

Hiru hilabeteko dardararen ondoren, Ameriketako kostalde antsiatua bistaratu zuten, baina San Pedro naoak lasai-lasai jarraitu zuen hegoalderantz, geldiune hobea izango zela-eta, Acapulcoraino jarraituz. Ez al zebilen bada herioa inguruan?

Ez zen makala lortu nahi zena eta arreta guztiak ere ez ziren nahikoak. Itsaso ezezaguna gero eta ezagunagoa zen, baina, zenbat eta gehiago jakin, orduan eta beldurgarriagoa ematen zuen. Herioa gertu zebilen, bai, baina harekin bizitzen jakin egin behar zen. Hori izango zen Andres Urdanetaren aurkikuntza. ■

Hitz gezidunak



Igorri / Narria-durak

Leku hartan / Tximino indartsua

Lur-jauzia / Daude

Atzerritarra / Jainko egiptoarra

Gizon izena

San Joan / Gordinak, zikinak

Ez militarrak / Kultura

Sobera / IRUDIKO FRUITUA

Nori atzizkia / Patua

Alderdi espainiarra / Indioa

Bakterio / Zuhaitz mota

... egina, total egina / Sustrai

Hortzak finkatzen dituzten haragiak

Azalera neurria / Garai, aldi

O birritan / Elikatu

Egitekoa, beharra / Kanarie-takoa

Iridioa / Kasik, abantzu


Festa / Oriaren erdian

Bokala / Bokala

Krakoa

Pl., zango-aren atala


Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Elkarte edo talde bateko partaidea.
2. Bi parte berdinetan banatu ondoko zatiak.
3. Deitzeko ekintzak.
4. Kideko.
5. Eguzki.
6. Gizon izena.
7. Gaixoak.
8. Haizeak.
9. Barrenak, barne organoak.

SOLUZIOAK



Hitz gezidunak

Goitik behera

1. Erkidea. 2. Erdiak. 3. Deiak. 4. Kide. 5. Eki. 6. Iker. 7. Eriak. 8. Aireak. 9. Erraiak.

Europar
JARDUNALDIAK



Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparrua ebaluatzea: eremu urriko hizkuntzentzako aukera

Bilbo, 2011ko **urria**ren **27**a eta **28**a

Antolatzaileak:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)
VITORIA-GASTEIZ

eta

Herri Administrazioaren Europako Institutua
Eskualdeen Europako Zentroa
(HAEI-EEZ)
BARTZELONA

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Liburu hau hemen duzu salgai:

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Unibertsitateko etorbidea z/g
20560 Oñati
Tel.: 943 782 000
Faxa: 943 783 177
argitalpenak-ivap@ivap.es



ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

zure etxean doan jaso nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

IVAP
Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz
administrazioaeuskaraz@ivap.es

Abizenak _____ Izena _____

NAN/IFZ _____ ENA _____

Helbidea _____ Posta-kodea _____

Herria _____ Probintzia _____

Mugikorra _____ e-posta _____